

**2021EKO MAIATZAREN 26KO KONTROLERAKO  
OSOKO BATZARRAREN BATZAR-EGUNKARIA  
(ITZULPENA)**

**DIARIO DE SESIONES DE LA SESIÓN PLENARIA DE  
CONTROL DE FECHA 26 DE MAYO DE 2021  
(TRADUCCIÓN)**

## **AURKIBIDEA**

### **Orrialdea**

- Batzarra hasi da.....	4
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako lehenengo puntua irakurri dau: “Errenta-aitorpenean herritarrei sortutako arazoek konponbideak.”.....	4
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	4
- Ogasun eta Finantzen foru diputatu Iruarrizaga Artaraz jaunak hartu dau berbea .....	7
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	8
- Ogasun eta Finantzen foru diputatu Iruarrizaga Artaraz jaunak hartu dau berbea .....	10
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bigarren puntua irakurri dau: “Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatzen duen gobernantza-eredua.”	11
- EH Bildu taldeko Ilardia Olangua batzarkide andreak hartu dau berbea	12
- Ahaldu Nagusi Rementeria Maiz jaunak hartu dau berbea .....	15
- EH Bildu taldeko Ilardia Olangua batzarkide andreak hartu dau berbea	17
- Ahaldu Nagusi Rementeria Maiz jaunak hartu dau berbea.....	19
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako hirugarren puntua irakurri dau: “Foru Aldundiak eta bertako kideek Batzar Nagusiei behar daben informazioa eta laguntasuna emoteko daben betebeharra betetea.”	20
- Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea .....	20
- Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu Etxanobe Landajuela andreak hartu dau berbea.....	22
- Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea .....	24
- Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu Etxanobe Landajuela andreak hartu dau berbea.....	26
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako laugarren puntua irakurri dau: “Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea.” .....	26
- EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea .....	27

- Gizarte Ekintzako foru diputatu Murillo Corzo jaunak hartu dau berbea	29
- EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea .....	31
- Gizarte Ekintzako foru diputatu Murillo Corzo jaunak hartu dau berbea	32
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bosgarren puntua irakurri dau: “Industria-ondarearen aprobetxamenduari buruzko estrategia.” .....	34
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Escalante Mesón batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	34
- Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatu Bilbao Ibarra andreak hartu dau berbea .....	34
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Escalante Mesón batzarkide jaunak hartu dau berbea .....	35
- Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatu Bilbao Ibarra andreak hartu dau berbea .....	36
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako seigarren puntua irakurri dau: “Aholku Batzorde Juridikoaren txostenak araugintzan sartzera eta Batzar Nagusietara bidaltzea.” .....	36
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	37
- Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu Etxanobe Landajuela andreak hartu dau berbea.....	37
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	38
- Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu Etxanobe Landajuela andreak hartu dau berbea.....	39
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako zazpigarren puntua irakurri dau: “Garraio publikoan segurtasuna bermatzeko segurtasun- eta babes-sistemak.” .....	40
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Cabornero Alor batzarkide andreak hartu dau berbea .....	40
- Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko foru diputatu Gómez Viar jaunak hartu dau berbea .....	41
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Cabornero Alor batzarkide andreak hartu dau berbea .....	42
- Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko foru diputatu Gómez Viar jaunak hartu dau berbea .....	42

- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako zortzigarren puntua irakurri dau: “Kontratazioko iruzurrezko jardunbideak.” .....	43
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea .....	43
- Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu Etxanobe Landajuela andreak hartu dau berbea.....	44
- EH Bildu taldeko Urkaregi Etxepare batzarkide andreak hartu dau berbea .....	45
- Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu Etxanobe Landajuela andreak hartu dau berbea.....	46
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bederatzigarren puntua irakurri dau: “Defizita erabiliz egin beharreko inbertsioen irizpideak.”	46
- EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea .....	46
- Ahaldu Nagusi Rementeria Maiz jaunak hartu dau berbea .....	47
- EH Bildu taldeko Duque Santacoloma batzarkide andreak hartu dau berbea .....	48
- Ahaldu Nagusi Rementeria Maiz jaunak hartu dau berbea .....	49
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako hamargarren puntua irakurri dau: “Petronor enpresaren eredu produktiboaren aldatetaren aurrean eman beharreko pausoak.” .....	49
- EH Bildu taldeko Rahona Garay batzarkide jaunak hartu dau berbea	49
- Ekonomia Sustatzeko foru diputatu Basurko Urkiri andreak hartu dau berbea .....	50
- EH Bildu taldeko Rahona Garay batzarkide jaunak hartu dau berbea	51
- Ekonomia Sustatzeko foru diputatu Basurko Urkiri andreak hartu dau berbea .....	52
- Batzarra amaitu da.....	52

2021eko maiatzaren 26ko batzarra  
goizeko 09:30ean hasi da.

Se inicia la sesión del 26 de mayo  
de 2021 a las 09:30 horas.

Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señoras y señores, buenos días a todos/as. Por favor, guarden silencio y que cada uno/a tome asiento en su escaño. No me gustaría gritar, por favor, por favor. No lo voy a decir por tercera vez, por favor. Muchas gracias.

Para dar comienzo a la Sesión Plenaria de Control, les agradezco que cada uno/a haya tomado asiento en su escaño y guarde silencio. Señor Diputado General, diputados/as, estimados/as apoderados/as y a toda la ciudadanía que va a seguir esta Sesión Plenaria vía *streaming*, buenos días. Asimismo, mi agradecimiento a los/as miembros de los medios de comunicación.

Dicho lo cual, para comenzar con la Sesión Plenaria de Control, el punto primero del Orden del Día es del siguiente tenor literal.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jauna:

1.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Interpelación  
([R.E.11/E/2021/0001724](#))

**Autor:** Fernández Angulo, Amaya (GM/TB-PPB)

**Asunto:** Las soluciones a los problemas generados a la ciudadanía en la declaración de la renta.

**Documento Principal:**  
([R.E.11/E/2021/0001724](#))

**Expediente:** ([11/B/18/0002394](#))

1.- Honako idatzi hau aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Itauna  
([11/E/2021/0001724SE](#))

**Egilea:** Fernández Angulo, Amaya (GM/TB-PPB)

**Gaia:** Errenta-aitorpenean herritarrei sortutako arazoen konponbideak

**Dokumentu nagusia:** ([11/E/2021/0001724SE](#))

**Espedientea:** ([11/B/18/0002394](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señora Fernández Angulo, tiene la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Mahaiburu andrea, mahaikideok, batzarkide jaun-androk, buenos días a todos/as, egun on danoi.

Ezelako zalantza barik bizkaitarrentzat zerga-mugarri orokor garrantzitsuena dan horretan, errentearen kanpainan, aurreikusgarritasuna eta segurtasuna emon beharrean herritarrei ziurbakotasuna, mesfidantzea eta artegatasuna sorrarazotea da itxaroten

dan azkena. Batez be, ez dago lehenengo eta behin ukapenean ostentzerik; bien bitartean, minimizazioan; gero, nahitaezko parkamenean; eta, azkenik, behar dan moduko zuzenketaren faltan.

Izan be, euspenean gagoz eta ez zuzenketan, aurreko Osoko Batzarrean baieztu zan lez, Gobernuaren arrabolak oposizioak urtenbide moduan proponidu ebazan proposamenak trabau ebazanean. Ez epearen luzapenik, ez benetako aurrez aurreko arreta eraginkorrik. Hori bai, irmetasuna akatsean, oposizioari egindako oposizioa eta, bien bitartean, bizkaitarrek behaztopa egiten dabe eten digitalagaz, arreta falteagaz, eta zerga-aholkulariei ordaindu beste urtenbiderik ez daukie, aurreko urteetan zerbitzu hori doarik lortzen ebenean.

Izan be, eslogana desagokia izan da erabat: “Barria eta erraza, Bizkaiak persona guztientzako proposamena dauka”. Errealidadeak sainete baten izenburu bihurtu dau, milaka herritarren eta, batez be, teknologiaren arloan zaurgarrienak diranen ezintasunagaitik eta haserreagaitik izango ez balitz, eurentzat finantza-erakundeen eta Foru Ogasunaren beraren aurrez aurreko zerbitzuen laguntzaz egiten zan izapide hutsa zan autorpena oztopo-lasterketa bihurtu dalako eta milaka lagunek, ikarak aidean, aholkularitzara jo behar izan dabelako horri aurre egiteko.

Dana martiaren 2an hasi zan, Foru Gobernuak sekulako zarabandaz iragarri ebazanean 2020ko Errentearen Kanpaina aurkezteko eredu barriaren inguruko barritasunak. Errazagoa eta erosoagoa zergadun guztientzat.

Alderantzizko esloganei jagokenez, merezimentua autortu behar jatzue. Barritzaile eta aurrendari moduan agertzeko grinan, ganez egin deusue eta ez zarie aurrendariak izan, egia esan. Komunikabideen aurrean, zarabanda handiz iragarri zan erraza, bakuna, eroso eta lagungarria ei zan metodoa. Proiektu aurrendaria saldu zan, baina deskalabrua izan zan azkenean, eta probauta ez egoan eta gaitasunik euki ez arren abian jarri zan lorpena saltzeko interes hutsagaitik baino ez.

Arabere errakuntza gehiago dagoz, ganera: aurrez aurreko arretearen faltea, telefono bidezko irazkiak, bazterketa telematikoa, segurtasunik eza eta zerga-arloko aholkulariakana joan behar izan ziran herritar txundituak. Bape eraginkorra izan ez zan sistema barriak tenturik euki ez ebanez eta sortutako kritikak orokorrak izan ziranez, egun batzuk geroago parkamena eskatu behar izan zan egindako errakuntzakaitik. Ganera, gorritu barik esan dozue akats horreek inoren kalterako izango ez dirala. Kostata bada be, norberak minutu batean-edo esan behar dauzan berbek ixten daben aide horregaz.

Funtsean, ostera, honako hauxe jazoten da: Ogasunak ez dauka bere errenta-kanpaina eztabaidagarria arean be aldatzeko asmorik, uste daualako sistema barriak sortutako arazoei erantzuna emoten dabilzala eta, hasiera batean, ukatu egiten daualako, eskatzen deusien lez, foru-bulegoetan eta erakundeetan aurrez aurreko arreta orokorra eskaintzeko aukerea.

Bien bitartean, zera itantzen deusat neure buruari: zer jazoten da errenta-autorpenerako aholkularitzea lehenengo biderrez ordaindu behar izan daben herritarraz? Zer jazoten da horretarako sarbiderik ez daukientzako inposizino telematikoagaz? Zer jazoten da sistemaren ezarpenak erasan dauzan pentsinodun eta erretiraduakaz? Zer jazoten da Foru Aldundiko sindikatuakaz, aurrez aurreko arretearen desagerpena eta arretearen kalidadearen galerea salatzen dabezala kontuan hartuta?

Esan dodanez, bagilaren 30ean-edo atertu arte itxaron beharra dago. Horixe bera da estrategia. Baita herritarrek jasateko daukien ia-ia gaitasun mugabakoagaz jokatzea be.

Izan be, ia-ia iskirioa da Foru Aldundia fiskalidade jasangarriari buruzko azterlanak ordaintzen egotea, bizkaitarrentzat euren zerga-betebeharrak betetea jasanezina dan bitartean.

Hain zuzen be, adierazo be egin da eredu orrazten segiduko dozuela, persona guztiak eroso egon daitezkan. Hau da, kontzertua emoten hasi eta, erdi-erdian, pianoa afinetan hasten gara. Zentzunbakokeria halakoa!

Gobernu honek ziurtatu egin dau zergadun bakar baten kalterako be izango ez dana Ogasun Sailak egin dauan akats bat. Buruhausteak eta aholkulariei egindako ordainketak zer, ostera? Ez ete dira kaltea? Ostantzean, ereduaren aldaketea korrika eta prisaka egin ez zana baiezte, proba nahikoa egin genduzalako. Izan be, probarik egin badozue, esan barik doa ez dirana izan ez beharrezkoak ez nahikoak.

Gure ustetan, akabo ke-kortinak, ukatzea, jazoeren ondorioz arrastaka joatea, foru-arreteren defizita, herritarren eskaerei jarritako irazkiak, bazterketa telematikoa, oposizinoko indar guztiek eta herritarrek salatutakoa, baita Foru Aldundiko sindikatuek eurek be.

Era berean, 50.000 bizkaitar baino gehiago ordezen dauzan Bizkaiko Erretiraduen Alkarteen Federazioak Bizkaiko Foru Aldundiari eskatu deutso errenta-kanpainan aurrez aurreko arreteta abian jarri daijala, eta adierazo egin deutso ondoeza dala nagusi, 2020. urteko Persona Fisikoen Errentearen ganeko Zergearen autorpena egiteko orduan aurrez aurreko arretarako zerbitzua kentzeko erabagia hartu daualako.

Inor ez da hurreratu, nekez itzali ei daitekean sutea amatetan ahalegintzeko, zuzentzea autortzea izango litzatekealako eta inork ez daualako Gobernuak marraztutako gidoitik urtengo. Bagilaren 30ean atertuko dau.

Hori bai. Halanbeharrez, krisi bete-bete, Aldundiak errentearen kanpainako Informatikako arduraduna ordeztu dau. Hara, politikan, ia-ia ez dago halanbeharrik. Politikan, dana da kausazkoa, eta Informatikako arduraduna ordezte, bere kolapsoa deskalabruaren hasiera izan zala kontuan hartuta, ordainezko makillajea da, horixe da emoten dauana. Errakuntzak ezin handiagoak badira be, zure Gobernu, Gobernuari eusten deusien alderdiak ez dagoz harago joateko prest, eurentzat nahikoa ei dalako parkamena eskatzea eta errentearen kanpainako eredu barriak hamarna milaka zergaduni sortutako arazoak konponduko dabezala agintzea.

Oposizinokook, aho batez, Batzar Nagusien aurreko Osoko Batzarrean, eskatu egin geuntsuen deskalabrua zuzentzen ahalegintzeko neurriak berehala hartu zengiezala. Proponidu eban lez, eta Elkarrekin Bizkaia taldea izan zan, bertako ordezkaria, De Madariaga andrea, hain zuzen be, telefono bidezko arreteta indartu beharra dago, une horretan artean milaka lagun egozalako kanpaina honetan behin be euren deiaren erantzunik jaso ez ebena.

Mozinoan, proponidu be egiten zan aurrez aurreko arretarako aurretiazko hitzordua Foru Ogasunaren beraren bidez edo eskualdeko edozein bulegotan eskatu ahal izatea, baita webgunean bertan be. Era berean, bertan, eskatu be egiten zan herritarrakandik hur dagozan bulegoetan aurrez aurreko laguntzarako eta aholkularitzarako zerbitzua abian jarri eitela autorpena modu telematikoan aurkezteko behar diran baliabide teknikoien eta aholkularitza profesionalaren bitartez, epea luzatu eitela, eta abar, eta abar.

Ezertxu be ez. Gobernuko taldeen arrabola ganetik pasau jakun. Kasu honetan, ostera, botoek ez deusue errazoa emoten, garaipen parlamentarioak baino ez deusuezalako emoten. Ez dogu itxaropenik galtzen. Eskatzeko ez eze, zerga-arloko betebeharrak beteten laguntzeko be egon behar da Aldundia. Oraindokarren, badago zentzuna berreskuratzerik, akatsak zuzentzeko eta bizkaitar guztiek errenta-autorpena segurtasunez,

beharrezkoa dan aurrez aurreko foru-arreta eraginkor baizen arin guztiaz eta ezinbestekoa dan laguntza-kalidadeaz egin ahal izango dabena bermatzeko.

Tribuna honetan adierazo dodanez, kanpaina honi buruzko hausnarketa sakona egin beharko da. Horretarako denporea egongo da, orain ez daigun arrete horretan jarri. Orain, urtenbideak jarri behar dira abian, errenta-kanpaina salbetan ahalegintzeko. Besteak beste, aurrez aurreko foru-arrete emotea, telefono bidezkoa hobetzea, baina aurrez aurrekoa, batez be, modu eufemistikoan izentetan dana, protokoloa, kentzea, egia esan, konsultak lortzeko ahal diran eragozpen guztiak jarten dabezan oztopoak, irazkiak diralako. Izan be, zuok aurrez aurreko erredua gura ez badozue be, bizkaitarrek gura dabe, bai. Ekatxa sorrarazoz badozue, gitxienez aterkia emon bizkaitarrei.

Seguruenik, xalotasun politiko handiegia daukat, baina sekula be etsiten ez dodanez, zera itantzen deusut: zer neurri hartuko dauz ahaldun nagusiak, zergadun bizkaitar guztiei 2020ko Errenta Autorpenaren Kanpaina benetan eta eraginkortasunez erraztu deieen eta jasandako buruhausteakaitik, zuok esan dozuen lez, nire taldearentzat eta niretzat sorrarazoz jakezan gastuak diralako, konpentsazinoa jaso daien? Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Fernández Angulo. Señora Iruarrizaga Artaraz, portavoz de la Diputación, tiene la palabra.

El Sr. **IRUARRIZAGA ARTARAZ** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as. Egun on danoi.

Fernández andrea, ikusten dodanez, barriro be, barriro be, agirian jarri dozuz errentearen kanpaina honen hasieran jazo diran gorabeherak, izan dirana baino gehiago esan dozu, emoten dau gorabehera horreek zergadun gehienetan euki dabela eragina eta, bide batez, kalifikatzaile goratuz apaintzen dozu zeure diskursoa, nahi-ta, egia esan, nire eretxiz edozelako nabaritasun enpirikoan oinarririk ez daukan diskursoa sortzen daben. Hain zuzen be, eratuta daukazun diskursoa danez, eratuta daukazun kontakizuna danez eta eutsi egiten deusazunez, bost ardura deus esan jatzunak edo azaltzen jatzunak edo Batzar Nagusiotan esaten edo azaltzen gozanak.

Ni neu ez naz kalifikatzaileei buruzko eztabaidan sartuko, eta onartu be ez dot egingo 2020. urteko Errentearen Kanpaina honetan jazo diran gorabeherak edo akatsak orokortzea.

Zeure itaunean proponiduten dozun lehenengo gaiari helduta, hau da, zergadun guztiei errentearen kanpaina benetan eta eraginkortasunez errazteko hartu behar diran neurriei jagokenez, barriro be adierazoko deusut errentearen kanpaina honetan aurkezpenarako nahikoa kanal dagozala, Bizkaiko zergadun guztiek euren zerga-arloko betebeharrak beteteko aukerea euki daien. Baieztapen hau ez da oinarri bakoa.

Hain zuzen be, errentearen erredua aldatu dogu, zergadun guztiei errentako betebeharrak bete ahal izatea benetan eta eraginkortasunez errazteko asmotan. Orain, zergadun guztiek autorpen-proposamena daukie, lehen erdiek baino ez ebenean jasoten. Era berean, arretarako sistema be jarri dogu abian, lehen baino jente gehiagori arrete emoteko eta, besteak beste, bulegoetara joan behar ez izateko. Horrezaz ganera, 2020. urteko Errentearen Kanpaina honek autorpena aurkezteko ohiko epealdiak baino hilebete gehiago iraungo dau, errentearen kanpaina honek 86 egun iraungo dauz-eta.



Zuk egokitzen jotzen dozun balorazio politikoa egin ahal izango dozu, baina errentearen eredu barri hau, kanpainearen hasierako arazoak gaituztutakoan, ondo doa. Baieztapen horri eusteko, datuak ematen deusudaz, eta, barriro be, osterara be, datuak ematen deusudaz tribuna honetan. Kanpainearen hasieratik atzora arteko datuak.

Zenbat autorpen aurkeztu dira? Ogasunaren webgunean, 377.747 autorpen aurkeztu dira daborduko. Webgunearen bidez, %86, 323.665; aplikazioaren bidez, 11.625, %3; telefonoz, 42.190 autorpen aurkeztu dira, %11,17; eta, bulegoetan, 267 autorpen aurkeztu dira, aurkeztutako autorpen guztien %0,07.

Telefono-deiak. Zenbati erantzun jake kanpainearen hasieratik? 332.291 telefono-deiri. Maiatzaren 1etik, batez beste 8.000 dei jasoten dira eguneko, eta erantzunaren ehunekoa %95etik gorakoa da. Horrezaz ganera, adierazo be egingo deusut 23.800 laguni baino gehiagori deitu jakela, bere egunean gure erantzuna jaso ez eben 38.500 inguru dei hareetatik. Barriro be, errentearen kanpainako telefono berezia gogoratuko dot, nonork erabili gura badau: 94 608 3000.

Bulegoetako aurrez aurreko arretak, zure esanetan kendu egin diran horreek: 3.113 laguni emon deusegu arreteak, hau da, eguneko 68 lagun batez beste. Emoten dau ez dagozala, baina 63 lagunek lan egiten dabe zerbitzu horretan, aurrez aurreko arretan. Persona horreek, ganera, eta argitu egin gura dot, aurrez aurreko arreteak emoten dabe, baina, horrezaz ganera, telefono bidezko arretan be lan egiten dabe, aurrez aurreko ezelako hitzordurik ez daukienean. Kanpainearen hasieratik esaten gabilzan berbera dinogu barriro, hau da, aurrez aurreko arreteak behar dauan jente guztiari emoten jakola aurrez aurreko hitzordua, eta hori holantxe izan da kanpainearen hasieratik.

Zenbat itzulketa egin dira? Atzora arte, 252.000.000 euro baino gehiago itzuli dira, 252.700.000 euro ia-ia, eta 237.265 autorpeni jagokez.

Zenbat kexa egon dira? 930 kexa daukaguz. Zure esanetan, milaka kaltetu dagoz, baina kexei buruzko datua esan deusudana da: 930 kexa daukaguz erregistrauta. Kexa horreei guztiari Ogasuneko teknikariek erantzuten deusee.

Datu objektibo horreen arabera, horrexegaitik adierazo deusut aurkezpenerako kanalak dagozala, autorpena derrigorrean egin behar daben edo zerga-arloko betebeharra bete behar daben zergadunek jorrazteko aukerea euki daien.

Zure itauneko bigarren gaian, konpentsazioa aitatzen dozu edo konpentsazioa proponiduten dozu jasandako buruhausteakaitik eta sorrarazotako gastuakaitik. Nik neuk badinotsut Bizkaiko Aldunditik ez deusegula Batzar Nagusioi proponiduko, holako neurria hartzeko organu eskuduna bada be, behar besteko zerga-aldaketea egitea, proponiduten dozun gaia jorrazteko. Beharrezkoa ez dala uste dogu.

Edozelan be, zure ustetan holako legegintza-ekimena egitea beharrezkoa bada, egokitzen jotzen dozun neurria proponidu ahal deusazu Ganbera honi, eztabaidatu daian eta, holan bajagoko, Batzar Nagusiok onartu daien. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Iruarrizaga Artaraz. A continuación, en el turno de réplica, señora Fernández Angulo, tiene la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Egia esan, ahal danik eta arreta handienaz entzun deusut, zure agerraldia, eta honako

ondorio hau atera dot: zuok burbuila batean bizi zarie, errealidade sozialari lepoa emonda, eta, txarrena, zuon egintzek eta erabagiek sorrarazoten dabezan ondorioen jakitun be ez zarie. Izan be, gai honetan, zure esanetan, danok erratuta gagoz: talde hau, oposizinoaren ganeratikoa, Bizkaiko erretiraduak eta pentsinodunak, herritarrak oro har, zerga-arloko aholkularien alkarteak, Bizkaiko Foru Aldundiko ordezkariak soziala. Oso gitxitan egon gara hainbeste, zuon eretxiz, hain erratuta.

Zeuk esan deustazunez, ez da azalpenak emoten diraneko lehenengo aldia, era guztietako datuak emon dira eta nire helburua, baita aitatu dodazan giza talde eta persona guztiena be, zuk emondako datuen arabera zabaltasunez gainditu diran unean uneko akats hutsak izan dirana baino gehiago esatea baino ez da. Dana dala, Gobernu honek beharrezkoa dan guztietan erantzun behar dau, eta eskatzen jakon beste biderrez emon behar dauz erantzunak. Batzar Nagusiotan, sortutako deskalabrua estaltzeko beste datu emon dozuezala entzun beharra be! Uste dot gogoratu egin beharra dagoala zu, nire moduan, bertan gagozan guztion moduan, herritarren zerbitzura gagozan ordezkariak garala. Batez be, Ganbera honetako ordezkariok Gobernu agertu daitela eskatzen dogunean, nahi-ta batzuetan Gobernuan hainbat eta hainbat urte eroatean ia-ia oposizino taldeoi egiten jakun graziazko emokidea dala emoten dauan, ez da holan, bada. Zuok beharrezkoa dan guztietan emon behar dozuez datu horreek, instituzino honi eta ordezten doguzan bizkaitarrei zor jaken errespetuagaitik.

Besteak beste, gobernuak, eta gogoratzea egokia dala be uste dot, personei bizitzea errazteko dagoz, ez zailtzeko, ezta denporea eta nasaitasuna galarazoteko be. Urtenbideak abian jarteko dagoz gobernuak, jakina, ez zeozelako grina mediatikorako, abian jarri baizen laster porrot egiten daben kanpainak harropuzkeria publikoaz iragarten dabezan mezuak igorrita. Izan be, zuk zeuk esan dozu: “aurkeztu egin dira, hain zuzen be”. Segiduan-edo esan dozu, uste dot zera ulertu deusudala: aurrez aurreko 300 errenta-autorpen Foru Ogasuneko bulegoetan. Milioi bat zergadun bizkaitar gara. Datu horrek agirian ixten dau mahai ganean jarten gabilzan gabeziak bat. Honako hauxe da, hain zuzen be: bizkaitarren eskaerari erantzunik ez emotea, aurreko ekitaldiko errenta-autorpena egin ahal izateko aurrez aurreko arretari, alegia.

Barrikuntzearen alde gagoz danok, inork ez dau kolokan jarten bide horretatik egin behar dogula aurrera. Hori bai, prestanta eta probanta egon daitela eskatzen da.

Horrezaz ganera, une honetan prebentzino-deia egitea beharrezkoa dala be uste dogu, 2022ko urtarrilaren 1ean heltzeko dagoan beste fronte bat daukagulako. Errentearan kanpaina honi buruz entzuten nabilenagaz antz handia daukien gauza batzuk entzuten nabil TicketBai Batuz programeari buruz. Ganera, jente guztiarentzako erakargarri liluragarri horreekaz beti: zerga-iruzurra ekiditea, enpresei agirien aurkezpena erraztea, kudeaketea aurreztea. Barriro be, informatikariak eta zerga-arloko aholkulariak tartean. Dei horreek egin baino ez dago hori konpontzeko. Gero, kanpaina horreek guztiak atontzen dabezan berba magikoak: Estaduan aurrendariak izatea, Europako joerak segidutea.

Halanda ze, prebentzino-deia egiten dot tribuna honetan. Horri buruz berba egiteko aukerea be eukiko dogu. Zer jazoko da programa horregaz? Izan be, uste dot une honetan asko dirala herritarrei sortzen jabilkezan ziurbakotasunak.

Hara, datu horreek ez dabe errealidadea estaltzen, baina talde honentzat ez eze, Bizkaiko Foru Aldundiko bertako sindikatuentzat be ez dabe estaltzen. Izan be, aste honetan bertan, ez joan dan astein ez aurrekoan, ezta errentearan kanpaina hasi zanean be, eta, esan dozunez, akatsak zuzentzen joan zarie, hori ez dator bat errealidadeagaz. Bagilaren 30a iritsi arte zagoze itxaroten putzua ahal dozuen moduan kurutzatzeko.

Aste honetan bertan, idazkia, komunikadua bialdu deuskue talde guztioi, eta, bertan, funtsean, honako hauxe esaten dabe 3 epigrafetan:

Lehenengoan, aurrez aurreko arreteak kentzea eta laguntzearen kalitatea galtzea. Hori ez dino errentearen kanpainako deskalabru hau izan dana baino gehiago esan gura dauan Talde Popularrak. Alderdi sozialak dino, eta, ganera, badino agindu bakar batek be ez dauzala personak berez behartzen administrazioagaz zerga-arloan bakar-bakarrik hartu-emon telematikoa eukitera. Hori berori agirikoa da, bestetik.

Bigarren epigrafean, zerbitzuaren kanporaketari buruz berba egiten da, eta kutunkeria erantzen dabe. Euren esanetan, inork ez daki zelan lortzen diran postu horreek eta, ganera, erabili egiten dozuez...

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señora Fernández, vaya terminando, por favor.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Amaitzear nago. Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Datu personalak darabilzuez.

Azkenik, antolakuntzarik ezari buruz eta lan administratiborako zein likidazinarako baliabide urriari buruz berba egiten dabe. Benetan uste dozu ez dagoala errazoirik 2020ko Errentearen Kanpaina honetan aldaketa sakonak egiteko? Gaur dinokuzanari begira, aurkeztuko dozuna edo ez albo batera itxita, talde honek egin egingo dauala aurreratzen deusut. Zelan ikusten dozu bizkaitarrak konpentsetea 2020ko Errentearen Kanpainako deskalabruak sorrarazo dauan kostu ekonomikoagaitik? Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Fernández Angulo. Por último, en el turno de réplica, señor Iruarrizaga Artaraz, portavoz de la Diputación, tiene la palabra.

El Sr. **IRUARRIZAGA ARTARAZ** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Lehen esan dodan berbera esango dot, Fernández andrea. Bost ardurak deusut dinotsudanak, azaltzen deusutanak. Zuk buelta emoten deusezu datuei. Holantxe bada, asko dalako; holantxe bada, gitxi dalako. Batzar Nagusiotan datuak emon doguzala badinot, esan barik doa eskatzen deuskuzuen guztietan etorriko garana. Izan be, ez gara nonoiz agerraldiren batera, batzorderen batera, osoko batzarren batera etorri? Inoiz be ez, uste dot. Oposizionoko talde guztiei begiratzen deusut eta esan deidela daturen bat, Aldundiaren erantzunen bat eskatu dabenean, nori ez deusagun emon. Nik neuk, behintzat, holantxe ulertzen dot. Halanda ze, kontua ez da zuk orain “zelan ez diran etorriko” horri buruzko berbaldi sutsua egin izana, politikea. Holantxe da, bai, egiten doguna egunero egiten doguna da.

Errenteari buruz gabilz berbetan. Orain, Batuz atera dozu. Tira, ba, oso ondo ikusten dot, zure ustetan egokia dana atera. Ez gara burbuila batean bizi. Guk oinak nahikoa daukaguz zoruari Ogasun Sailean, egunez egun egiten dogu kanpainaren jarraipena eta kanpaina honetara jotzen daben persona guztien era guztietako iruzkinak daukaguz.

Uste dot erredua ondo doala, eta erredua ondo doa. Ganera, geratzeko etorri dan erredua da. Ez daukagu beste urtenbiderik, egokitu egin behar gara. Badinot, administrazioa bera eta zergadunak eurak egokitu behar dira, hauxe dalako etorkizuna.

Barrero be, aurrez aurreko arreteak daukagu berbabide. Urtebete eta piko daroagu bertan, eta danok bertan gagoz jesarrita ezer jazo izan ez balitz lez. Ez ete gagoz pandemian, ez da ezer jazoten, gura dan moduan emon behar ete da aurrez aurreko arreteak? Jakina, gero, nonor aurrez aurreko arreteak negoziatan doanean, beharginek eurek eskatzen

deuskuezan eskakizunak diranak dira. Halanda ze, uste dot zer egoeratan bizi garan konturatu behar garala, nahierako aurrez aurreko arreteak emoteko, eta, arabere gitxiago, aurton 3 hilebete iraungo dauan errenta-kanpainan.

Izan be, azaltzen deusudanak, dakarguzan datuek zuri bost ardura deusueñez, zuk zeure diskursoagaz segidu. Zuri jazoten dagoanari buruzko datu enpiriko egiaztauak emoten ahalegintzen naz, baita daroaguzan datuak be.

Aldundiko sindikatuek egin daben jakinarazpenari jagokonez, niretzat, lehenengo eta behin, harrigarria izan da Aldundian alderdi sindikalagaz dagozan topaguneak errespetau ez izana eta hortik be jakitera emon ez izana. Zuk ondo dinozunez, hiru puntu daukiez berbabide.

Lehenengoan, aurrez aurreko arreteak kendu dogula, eta nik hemen behin eta barrero esan dot aurrez aurreko arreteak lehenengo egunetik bertatik emoten gabilzala eta 64 lagunek emoten dabela aurrez aurreko arreteak.

Bigarreanean, zerbitzuaren kanporaketari buruz berba egiten dabe, eta oso-oso Aldundiarena dan Zugaztel soziedadeari buruz berba egiten dabe, gure baliabidea izanda. Eragiketa horreei jagokonez, Batzar Nagusietan ondo baino hobeto azaldu da zein izan dan eragiketa horren guztiaren prozesu osoa. Uste dot Zugazteleko presidentea dan diputaduak azaldu ebala, eta, horrezaz ganera, uste dot batzorde horretan egon zinala zu.

Hirugarreanean, errentako administrariak likidazinoko lanak egiten dabilzala dinoe. Ez, ez, ez dabilz likidazinoko lanak egiten, zergadunei laguntzeko lanak egiten dagoz. Ganera, bertara doan zergaduna aguantau behar dabela be badinoenez, zergaduna eurak dagozan lekura badoa, badago aurrez aurreko arretarik.

Azken batean, horixe bera da errentearan kanpaineagaz egiten gagozana, eta ezarri dan eta, nire ustetan, hurrengo urteetan Bizkaiko errentearan etorkizuna izango dan programa barritzaileak dakarrena egunez egun hobetzeko ahalegina egiten segiduko dogu. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Iruarizaga Artaraz. Punto segundo del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

2.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Interpelación  
([R.E.11/E/2021/0001748](#))

**Autor:** Ilardia Olangua, Beatriz (EHB)

**Asunto:** El modelo de gobernanza que impulsa la Diputación Foral de Bizkaia

**Documento Principal:**  
([R.E.11/E/2021/0001748](#))

**Expediente:** ([11/B/18/0002407](#))

2.- Honako idatzi hau aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Itauna  
([11/E/2021/0001748SE](#))

**Egilea:** Ilardia Olangua, Beatriz (EHB)

**Gaia:** Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatzen duen gobernantza-eredua

**Dokumentu nagusia:** ([11/E/2021/0001748SE](#))

**Espedientea:** ([11/B/18/0002407](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señora Ilardia Olangua, tiene la palabra.

La Sra. **ILARDIA OLANGUA** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as.

Tal y como mencionamos en la motivación de nuestra interpelación, ahora que estamos llegando al ecuador de esta legislatura, nos parece que es un momento apropiado para reflexionar sobre el modelo de gobernanza que se ha impulsado y se impulsa por parte de la Diputación Foral de Bizkaia, valorarlo y posicionarlo de cara al futuro.

Este último año, fundamentalmente, no ha sido muy común. La pandemia del Covid-19 nos ha golpeado duramente, y ha provocado un gran malestar en toda la sociedad, principalmente, entre los colectivos más vulnerables. Desde este micrófono, hemos manifestado a menudo que con esta pandemia se han evidenciado más que nunca las grandes carencias que se han denunciado constantemente en este territorio como consecuencia de esta crisis.

3 urte baino ez dira igaro egoera ezegonkorrean egozan andra behargin hareek Bizkaian gure kaleak berdez tintatu ebezanetik eta gure lurraldean egindako greba luzeeneko protagonistak izan ziranetik. Honako hauxe eskatzen eben: “Bizkaiko egoitzetako laguntzearen kalidadea hobetzea, “egoiliarrei arreteta emoteko nahikoak diran esku gehiago egon daitezana”. Azken batean, eskaera feministea zan, eskaera soziala zan, eta, batez be, zainketak duintzea eukan helburu, gure edadekoen zainketak, kasu honetan. Oraindokarren, gogoan daukat zuok defendidu egiten zenduela patronalaren eta sindikatuen arteko arazoa zala...

Orduan, pandemia etorri zan. Egoitzetako atetik sartu da, eta kolapsau egin dauz. Ganez egin dabe, eta argi eta garbi ikusi da zuok gobernetako daukazuen modu hori, beste alde baterantz begiratuta, aitatu dodan greba haretan lez, baloiak kanpora botata eta zainketen kostuen eta kalidadearen murrizketaren bidez gure edadekoen egoitzak gitxi batzuen negozioia izatea onartuta.

Agirikoa danez, pandemia honek lehendik geunkan zainketen krisi hori larriagotu dau..., baina, batez be, agiriagoan itxi dau, egia esan.

Gai honetan Foru Gobernu honek zeozer egiaztatu badau edo, hobe esanda, egiaztatu ez badau, gardentasuna da. Gogaitu arte errepikatu dogu benetako egoerari buruzko datuak eta informazioa berandu eta txarto ailegau dirala. Oso txarto.

EH Bildukook ulertu egin dogu lagundu egin behar zala, hainbestetan arpegiratzen jakun “kritikatu kritiketearren” horretatik urrun-urrun. Holantxe egin dogu, modu publikoan eta adierazo jakuzan bideetatik, dozenaka hobekuntza-proposamen eginda. Ia-ia, bakar bat be ez da kontuan hartu.

Ez naz egoitzetan pandemiaren kudeaketan egondako gardentasunik eta partaidetzarik ezaren adibide honetan luzatu hori jazo daneko arlo bakarra izateagaitik. Horixe bera aitatu dot, oso ondo laburtzen daualako zuok defendiduten eta zuok betearazoten dozuen gobernantza-ereduaren paradigmea.

Halanda be, zuon egikerako partaidetzarik eta gardentasunik ezaren adibideak asko eta ugariak dira... Ostantzean, zer izen jarriko zeunskioe, aurreko itaunean aitatu dan lez, errenta-autorpena aurkezteko sistema barriagaz jazoten dagoanari? Joan dan urtean, oposizionkook, pentsinodunen taldeek... apurkako aldaketea egitea proponidu geuntsuen, herritarrak eten digitalera egokitu daitezana. Sistema mistoa.

Zuok, ostera, Gobernuan gehiengo osoa daukazuenez, ez dozue hausnarketa kolektiboaren bidez gobernau gura, eta ez dozuez oposizioaren eta, oro har, espekto sozialaren proposamenak batu gura.

El suyo es “un modelo de gobierno que solamente habla consigo mismo escudado en su mayoría absoluta”, y lo que nosotros/as les pedimos desde aquí es que rompan, que corten con eso y que escojan un modelo de diálogo. No cejaremos en ese intento. Este territorio necesita un nuevo modelo de gobernanza.

Al inicio de la pandemia, el desconocimiento era general. Sin embargo, había dos maneras de superar ese desconocimiento: que entre todos/as buscáramos soluciones o que el Gobierno, por su parte, tomara decisiones. Durante esta pandemia, la Diputación Foral de Bizkaia se ha decantado por esa segunda opción. Ha rechazado las llamadas a la colaboración realizadas por parte de EH Bildu y a los/as que somos los/as representantes políticos/as de la ciudadanía de Bizkaia no nos ha brindado ninguna posibilidad de participación.

Continuamos en situación de pandemia, pero hemos regresado a una especie de “normalidad”, en lo que respecta a la actividad institucional, al menos. A pesar de todo, no hay ningún cambio en el modelo de gobernanza de la Diputación Foral de Bizkaia.

Puede suceder que alguien piense que su modo de hacer es el modo de hacer que se lleva a cabo en todos los sitios o, aún peor, que se trata de un sistema que proporciona el mejor resultado..., y, en nuestro propio país, existen muchos ejemplos de otros modos de hacer y ahí están los resultados.

Mire, en las últimas décadas, se ha desarrollado un modelo de gobernanza propio en Ipar Euskal Herria. Se puso en marcha una nueva modalidad de hacer políticas públicas, con la implicación de todos/as los/as representantes institucionales y los/as agentes de la sociedad civil. Ese innovador modo de hacer suscitó tal conciencia en Iparalde, que se materializó en la creación del Consejo de Desarrollo y el Consejo de Electos/as. Ese binomio resultó ser fundamental para el impulso de un nuevo modelo de gobernanza.

Ese continuo ejercicio de alcanzar acuerdos constituyó el embrión del proceso de institucionalización.

Un proceso de veinte años que sirvió para impulsar una cultura política basada en el debate, en la negociación y en el acuerdo. Hemos visto sus efectos, por una parte, en el proceso de paz y, por otra parte, en la creación de una propia institución.

En las últimas décadas, Ipar Euskal Herria ha sido un ámbito territorial que ha contado con un bajo nivel institucional, pero con un gran nivel de gobernanza, teniendo en cuenta la aportación entre diferentes y junto con la sociedad civil.

Puede existir la tentación de pensar que también nosotros/as, si Euskal Herria Bildu estuviera en su lugar, adoptaríamos un modelo similar al suyo..., pero ya saben que no, que eso no es así y que, además, es demostrable...

En un municipio de 30.000 habitantes, en Galdakao, la ciudadanía ha decidido a qué se va a destinar un millón de euros de los presupuestos municipales. En un proceso que ha durado largos meses, han elegido qué propuestas planteadas por parte de ellos/as se van a ejecutar. El gobierno municipal celebró reuniones informativas barrio por barrio, se reunieron con distintos colectivos de la localidad. Recogieron sus propuestas a través de los buzones que se colocaron en distintos lugares del municipio, así como a través de Internet. Este municipio va a poner en marcha los proyectos que fueron elegidos por la ciudadanía.

Desde que llegamos al gobierno, hemos estado inmersos/as en un continuo proceso de impulso de la participación en ese municipio, y, además, con un gran éxito en el resultado.

El objetivo es claro: realizar una reflexión activa entre la ciudadanía y la administración, promover la solidaridad y la colaboración, responder a las demandas y necesidades de la ciudadanía con un nuevo modelo de gobernanza.

Si no, por ejemplo, ¿cuál está siendo el modelo de gobernanza implantado en Durango por parte de los grandes grupos de la oposición de estas Juntas Generales? Pues similar al que se está implantando en Galdakao, “el modelo de participación ciudadana”.

Ese modelo ha supuesto, entre otras cosas, que 7.076 habitantes de Durango hayan acudido a votar hace poco, para decidir sobre el proyecto ferroviario sometido a debate. Ese es nuestro modelo, estamos demostrando que existen otros modos de hacer.

Disponer de la mayoría absoluta no debe implicar que todas las decisiones tengan que ser adoptadas unilateralmente. Nosotros/as no lo compartimos, y los ejemplos que he mencionado son una clara muestra de ello.

Empezando por la campaña electoral, durante toda la pandemia, cuando se presentó el proyecto presupuestario..., nosotros/as hemos puesto continuamente propuestas sobre la mesa. El Gobierno sabrá por qué rechaza estas propuestas nuestras.

EH Bildu ha estado dispuesto a colaborar continuamente. Debemos decir que en el último Pleno de Política General, el pasado mes de octubre, percibimos una especie de cambio, que se intentó llegar a acuerdos en las resoluciones y que también se alcanzó algún que otro acuerdo.

Sin embargo, luego, esos acuerdos no se reflejan en los presupuestos, no se materializan o existen muchas dificultades para cumplirlos.

En el día a día, el PNV y el PSE, que conforman el Gobierno Foral, imponen su mayoría, para rechazar la mayor parte de las propuestas, por no decir todas, de la oposición.

Dicen que la Diputación Foral de Bizkaia defiende un gobierno abierto, transparente y cercano, pero en sus actuaciones no se aprecia nada de eso.

Por tanto, este es el objeto de la interpelación que hemos planteado al señor Diputado General, Unai Rementeria Maiz.

De cara al futuro, en los próximos años de la legislatura, ¿están dispuestos/as a impulsar un modelo de cogobernanza entre todos/as los/as representantes políticos/as de la ciudadanía de Bizkaia?

El modelo de cogobernanza también se debe compartir con la ciudadanía. ¿Están dispuestos/as a poner en marcha procesos para el impulso de la participación ciudadana? ¿En qué ámbitos?

¿Están dispuestos/as a evaluar el Plan Bizkaia Egiten y a realizar los cambios pertinentes conforme a sus resultados, recogiendo las propuestas de todos los grupos y de la ciudadanía?

Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Ilardia Olangua. En el turno de réplica, señor Diputado General, portavoz de la Diputación, tiene la palabra.

El Sr. **REMENTERIA MAIZ** jaunak: Señora Presidenta, junteros/as, buenos días a todos/as. Mire, señora Ilardia. Usted plantea expresamente tres preguntas en el escrito, junto a su exposición, y yo voy a responderlas de atrás adelante, si le parece bien.

La última pregunta que plantea está relacionada con la evaluación del Plan “Bizkaia Egiten”. Usted ya sabe cuál es nuestra metodología. Nosotros/as elaboramos los informes, validamos qué tipo de niveles de ejecución llevamos a cabo, teniendo en cuenta la pandemia que sufrimos. Empezamos a hacerlo en la legislatura o en el mandato anterior, y, junto con la elaboración de informes, yo personalmente y los/as diputados/as, pero yo también, hemos estado rindiendo cuentas comarca por comarca. Se reunían unas 100 personas, de unas 60 a unas 100 personas por grupo.

Eso no ha sido posible durante la pandemia, pero volveré, volveremos a hacerlo, sin lugar a dudas, ya que de eso se trata el rendir cuentas y estar con la ciudadanía.

Estos últimos días, el último año, desde marzo del año pasado hasta marzo de este año, tienen en sus manos todas las decisiones adoptadas por parte de esta Diputación, cronológicamente, todas, todas, y también las hemos hecho públicas. El informe semestral de este año también lo tendrán en su mano cuando esté terminado, y también será público.

Plantea la segunda pregunta, relativa a la participación. También sabe que hemos aprobado un plan sobre participación. Se aprobó el pasado mes de noviembre, y, además, se aprobó tras someterlo a debate en estas Juntas Generales. Desde entonces, existen, empezando desde el mes de diciembre, existen quince procesos diferentes, que se han llevado a cabo durante esta pandemia o enfermedad que estamos viviendo, que estamos sobrellevando. Por tanto, los hemos llevado a cabo con todas las dificultades.

La tercera pregunta o la última que yo respondo, pero su primera, relativa al impulso de un modelo de cogobernanza entre todos/as los/as representantes. Lo que requiere una explicación más extensa, porque yo creo que aquí, aquí reside la clave de toda la interpelación, se encuentra aquí.

Asociaciones, sociedad, ciudadanía, hace alusión a todos/as, pero la clave reside en nuestra representación política. Eso es importante. Aquí, en este Parlamento nuestro, ustedes cuentan con 10 escaños, 10 representantes políticos/as, y lo cierto es que los partidos que sustentan el Gobierno cuentan con 33 representantes. Por tanto, casi un 65% del Parlamento. Eso es lo que tenemos aquí, objetivamente, eso es lo que sucede aquí, aprobamos las normas allí y aquí.

Han dicho desde el principio que son la oposición, se ven así a sí mismos, pero ahora aquí sacan a colación el concepto de cogobernanza. Lo cierto es que yo no entiendo esa cogobernanza entre representantes políticos/as, ese concepto. No entiendo cómo lo plantean. ¿En qué se basa? ¿La cogobernanza supone la unión del gobierno con la oposición del parlamento?

Al principio, se ha referido aquí a un modelo, a una mancomunidad, en Ipar Euskal Herria se trata de una mancomunidad. ¿Qué vamos a hacer? ¿Vamos a eliminar el modelo que tenemos en Euskadi, a la vista de los resultados que nos ha brindado durante 40 años, e implantar una mancomunidad? Porque se trata de un modelo aprovechable y está bien. No, disculpe. Disculpe, no.



Lo que yo quiero saber es en qué se basan ustedes para llevar adelante esa cogobernanza, ese concepto. ¿En qué consiste? ¿En que ustedes están dispuestos/as a colaborar? ¿En que nosotros/as debemos hacer lo que ustedes quieren desde el Gobierno? Deben concretar ese concepto. Porque aquí incluso ha puesto un ejemplo. Sí, “nosotros/as lo hacemos en los ayuntamientos”. Ha puesto a Galdakao como ejemplo. Hay un millón que se decide participativamente. Disponen de 29 millones ahorrados, como remanente, 29 millones, guardados ahí. Un millón decidido participativamente, muy bien. 29 millones.

Mire, dejémoslo claro. La cogobernanza se entiende como una gobernanza compartida, una gobernanza compartida. Es decir, cuando el gobierno, distintos gobiernos han de decidir en relación a un tema concreto, eso es la cogobernanza. La cogobernanza se puede dar cuando en un principio se conforma el parlamento, cuando se forma una coalición. Dos partidos políticos alcanzamos un acuerdo de esa manera, con una mayoría, y cogobernamos. La cogobernanza es posible, a lo sumo, cuando de alguna manera en ese comienzo de la legislatura al gobierno se le concede un “” desde fuera del parlamento, lo que se llama un acuerdo de legislatura. Ahí también se puede entender la cogobernanza. Sin embargo, eso no es lo que ocurre aquí. Ustedes dijeron desde el principio: “somos la oposición, y vamos a trabajar desde la oposición”. Por tanto, la cogobernanza no es posible en ese sentido y bajo ese concepto, en ese sentido.

Otra cuestión es tomar decisiones compartidas, decisiones compartidas. Tendremos que verlo con la participación. Ese es otro planteamiento, pero van a tener que concretar esa cogobernanza, yo no la entiendo. Si a partir de ahora su intención es impulsar acuerdos entre el gobierno y ustedes respecto a distintas cuestiones o en general, si su deseo es ese, bien, bienvenido sea, ¡que les vaya bien! Últimamente lo hemos escuchado muchas veces. Yo se lo he escuchado a ustedes muchas veces: tender la mano. En la interpelación también hace alusión: “estamos dispuestos/as, tendemos nuestra mano”. Sin embargo, hasta ahora, ni una sola vez, ni una sola vez hemos pasado de las palabras a los hechos, ni una sola vez. Han tenido la oportunidad de hacerlo, pero ni una sola vez. Yo aquí, y me gustaría estar equivocado, lo digo sinceramente, pero yo aquí percibo una intención política, una intención política totalmente. Ustedes están buscando un “leku”, están en la oposición, hay una situación de pandemia sobrevenida a una crisis, y están buscando ese “leku”, se trata de una estrategia nacional de EH Bildu. Yo lo veo así: EH Bilduren estrategia nazionala.

Izan be, jakina, estrategia hau ez dago hemen, bere egunean sortu zan. Estrategia hau uneotan Bizkaian bizi dogun beste pasarte bat da, baina bere sasoiari sortu zan, Eusko Jaurlaritzearen aurrean ezegonkortasuna sortu gurean. Bere egunean ikusi genduan. Gidoia berbera da, egoera berbera da, ostera, baina orain kokapena da desbardina, orain Bizkaian da. Argudio berbera.

Baterako lana, eskua luzatzea daukazue berbabide. Berbabide, bai. Halanda be, neure sentiazinoa eta neure eretxia emongo deusuedaz Bizkaiko ahaldun nagusi moduan eta como ciudadano, herrikide moduan. Herrialde honek, lurralde honek eta gizarte honek, eta ez nabil berbetan ez gobernuari buruz, ez instituzino honi buruz edo Aldundi honi buruz, herrialde honek, lurralde honek eta gizarte honek guztion premina handiena euki dabenean, guztion batasuna, laguntzea, laguntzinoa gehien behar izan dabezanean, zer egin dozue zuok? Apartarse, desagertu. Horixe da sentiduten dodana. Herrialde honek eta lurralde honek guztiok geure onena emotea behar ebenean, zuok desagertu egin zarie, ez dozue bat egin, ez dozue ezertxu be egin. Arabere gehiago, guztiz kontrakoa, banatu egin gura izan dozue, ez batu, zatitu baino. Horixe bera izan da EH Bilduren jarrera, eta horixe bera da nik neuk pandemia honetan ikusi dodana.

Hain zuzen be, danetara joan zarie, Osasuneko sailburuaren aurkako gaitzespena be bultzatu dozue pandemia bete-betean, horixe berori be bai. Edozelan be, zer esanik ez, urtengo ez ebana, aurrera egingo ez ebana jakinda. Horixe bera be egin gura izan

dozue. Nik neuk egoera hori ez dot laguntzeko ikusten, banatzeko baino. Kritikatik, egin egin leiteke, lagundu egin leiteke, ez banatu.

Halanda ze, norbera zertan dabilen hartu daigun geure gain. Niretzat, nik neure posizino instituzionaletik eta herrikide moduan igarri dodana konstruktiboa ez dan oposizinoa da. Hemendik aurrera, ganera, erratuta egon gura neuke, barrero dinot. Dana dala, konstruktiboa ez dan oposizinoa ikusten dot. Uste dot “zenbat eta txarrago hobeto” pentsetan segiduten dozuela, horrek irabaziak emoten deusuezala pentsetan segiduten dozue. Tira, ba, holantxe izango da.

Yo percibo una pose en este planteamiento de la cogobernanza. Me van a disculpar que lo diga así, pero yo veo una pose. Gobernar y cogobernar supone tomar decisiones. Betidanik esan dot. Gobernetea unean-unean erabagiak hartzea da, arriskatzea da, entzutea da, bai, asko eta asko. Era berean, azalpenak emotea da, jakina, Batzarrotan, Parlamentu honetan, gizartean. Dana dala, beste batzuen eta, kasu honetan, beste alderdi politiko batzuen asmoei erreparetea be bada. Nik, aurkeztuko dan mozino horri jagokonez, zuok itaun honen ondorioz sortutako mozinoa aurkeztuko dozuelako, uste dot kogobernantzeari buruz berba egiten dozuela. Nire eretxiz, itxurakeria da, aukera aparta euki zenduelako adosteko, erabagi partekatuak hartzeko, ez era partekatuan gobernetako, era partekatuan erabagiteko baino. En esa puesta en común, aukera parebakoa euki zenduen horretarako erabilten dan tresna nagusiaren bidez, hau da, aurrekontua, el presupuesto, politika guztiak bultzatzeko erabilten dan tresna nagusia. Non egon zinien, ostera? Desagertuta, bada. Ez zenduen holakorik gura izan. Gizarte honek gehien behar ebanean, zuok lurraldea hobetzeko lan egin zeinkienean. Halanda ze, gobernantza partekatua, erabagi partekatuak, bai. Edozelan be, nik zuok berbetatik ekintzetara igarotea gura dot, de las palabras a los hechos. Si no, lo vería como una pose. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Diputado General. En el turno de réplica, señora Ildaría Olangua, portavoz del grupo Euskal Herria Bildu, tiene la palabra.

La Sra. **ILARDIA OLANGUA** andreak: Señor Rementería, el Plan de Participación se ha aprobado recientemente, sí, pero se han rechazado todas las propuestas para la participación ciudadana. La Diputación presentó el plan para el mandato “Bizkaia Egiten 2019-2023”, pero no se dispone de información respecto hasta dónde se ha cumplido lo que se contempla en el mismo. En concreto, no se han llevado a cabo ni el seguimiento ni la evaluación del plan ni la rendición de cuentas ante la ciudadanía de Bizkaia, como se establece en el apartado quinto del Título, porque no se ha publicado el informe anual.

Hace dos meses dijo, cuando anunció un cambio en el Gobierno Foral, que el objeto perseguido era superar la pandemia y, después, afrontar con frescura y energía los cambios que requiere Bizkaia. Eso es lo que manifestó. Nosotros/as le dijimos que, más allá de los cargos o más allá de los cambios de cargos, era necesario un cambio político. A su vez, que también el modelo de gobernanza requiere cambios que son imprescindibles. Nosotros/as sí que le decimos que se debe pasar de las palabras a los hechos.

¿Que dónde estábamos en los presupuestos? Pues, mire, en los presupuestos planteamos muchísimas propuestas. ¿Dónde estaban ustedes para reunirse con nosotros/as, para reflexionar y para aprobar o negociar alguna? ¿Dónde estaban ustedes? Porque para ustedes el único modelo de gobernanza arrabolarena da: “neuk agintzen dot, neuk dinot, eta, gustuko badaukazu, erosi; ostantzean, hortxe geratuko zara, eta, ganera, non zengozan itantzen deusut”.

Porque para ustedes ese es el único modelo de gobernanza, para ustedes ese es el único modo de negociación, para ustedes esa es la única manera de dialogar, sí. “Nosotros/as somos la mayoría”. Además, lo ha mencionado usted mismo. Esta es la representación de Bizkaia, pero la amplia representación de Bizkaia. Lo que no significa que ustedes, teniendo la mayoría, que solo ustedes deben gobernar. Ese no es el único modelo, eso es a lo que ha hecho alusión en la primera intervención, que ese no es el único modelo. Lo sabemos, somos conscientes de que ustedes tienen la mayoría absoluta. ¿Pero eso significa que todo ese espectro del resto de Bizkaia se debe quedar sin voz, sin ser escuchado? Ese es su modelo, aquí está representada la mayoría, gobierna la mayoría. Sin embargo, eso no significa que sea el mejor modo, el único modo de hacer.

Hemos alcanzado acuerdos, unos pocos, pero los hemos alcanzado, y voy a leer alguno: “Bizkaiko Batzar Nagusiek Enplegua, Gizarte Inklusinoa eta Bardintasuna Sustatzeko Sailari eskatzen deusie 4/2018 Foru Arauan zehaztutako bardintasun-egituren laguntzaz behar besteko ekintzak diseinatu daizala, Andren eta Gizonen Bardintasunerako Foru Arau hori garatzeko eta betearazoteko, eta, horretarako, sail bakotzak eta foru-sektore publikoko erakundeek egin beharreko jarduketak zein diran zehaztu daizala. Ekintza horreek, kronogramagaz batera, Enplegua, Gizarte Inklusinoa eta Bardintasuna Sustatzeko Batzordean aurkeztuko dira”. Por ejemplo, ha transcurrido un año, y no sabemos nada sobre esas acciones. También lo preguntamos en febrero, pero no se da cumplimiento a lo acordado o continúa sin cumplirse. Se han adoptado resoluciones en colaboración: elaborar un estudio desde la perspectiva de género sobre los cuidados formales e informales. En la presentación de los presupuestos, dijeron que ya había una partida, y, sí, sí la hay, pero hasta abril estaba pendiente de ejecución el cumplimiento de los presupuestos. También respecto a la transformación de los cuidados de larga duración, con el consenso de todos/as, porque alcanzamos un acuerdo, se instaba a la Diputación a que transformara los cuidados de larga duración en Bizkaia. ¿Qué es lo que ha sucedido con eso también? No sabemos en qué punto está.

Es decir, ¿usted nos pide a nosotros/as que pasemos de las palabras a los hechos? Entre los pocos acuerdos que hemos alcanzado, no se han cumplido los que he mencionado. Pasen ustedes mismos de las palabras a los hechos, Bizkaia necesita un modo de hacer diferente y los socios de gobierno cambian en ese sentido. Más allá de la campaña de marketing, más allá de ciertos titulares, pásense. Nosotros/as insistimos que aquí les tendemos nuestra mano, y es demostrable, y que, además, hemos planteado cientos de propuestas. Sí, durante la pandemia estuvimos ahí, en la dirección que ustedes indicaron, en la dirección que ustedes indicaron. Pusieron un/a técnico/a, y les enviamos un sinfín de propuestas. No respondieron ni una sola vez, no respondieron ni una sola vez.

En los presupuestos, ahí estaban nuestras propuestas. Prácticamente ni siquiera se sentaron con nosotros/as. ¿Cuántas veces nos enteramos de sus proyectos por los titulares de prensa? ¿Es ese su modelo participativo? ¿Es ese el respeto que tienen al resto de representantes de Bizkaia? ¿Ese es?

Ciertamente, anunciaron cambios para afrontar los nuevos retos, y, sinceramente, les pedimos, y estamos esperanzados/as, que hoy por hoy de momento hagan realidad todo lo que han dicho, más allá del marketing y de los titulares. No es cierto gu desagertu egin ginanik herrialde honek bat egitea behar ebanean. Herrialde honek bat egitea behar ebanean, muzin egin deuskuzue barriro, ordezten doguzan bizkaitarren zati hori guztia itxi dozue albo batera. Ez gara desagertu, muzin egin deuskuzue barriro. A eso nos referimos con lo de que es una cuestión a modificar. Volvemos a tender nuestra mano, pero, de verdad, pasen de las palabras a los hechos. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Iardía Olangua. Por último, en el turno de réplica, señor Diputado General, portavoz de la Diputación, tiene la palabra.

El Sr. **REMENTERIA MAIZ** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Dispongo de cinco minutos.

Señora Iardía, desaparecidos, desaparecidas, desagertuta, no han estado, y, se lo repito, así lo siento, y así he de decirlo: no han estado. No han estado a la altura de lo que pide la sociedad. Nosotros/as somos el gobierno, y gobernar implica tomar decisiones. Seguiremos tomando decisiones, siempre, y siempre estaremos escuchando lo que dicen los/as demás.

El Plan Bizkaia Aurrera. Yo les llamé personalmente, solicité personalmente a todos los partidos políticos que realizaran una serie de planteamientos en las decisiones y que los íbamos a tener en cuenta, y los tuvimos en cuenta, para unos/as más que para otros/as, pero yo les llamé personalmente.

¿Que en la representación política de Bizkaia debemos hacer algo más, que no damos voz? ¿Que no tienen voz? Entonces, ¿qué están haciendo aquí, en el Parlamento? Esto es lo más importante: dar voz. En democracia, lo más importante es la voz y la expresión, y para eso sirve el parlamento.

Sin embargo, les diré algo más. Yo también pido que se cumplan unos mínimos. Yo traigo aquí lo que para mí también es lo más importante. Porque cuando nos referimos a la cogobernanza y cuando se dan los acuerdos y las manos, debemos hablar de todo. Mire lo que ha sucedido en los últimos meses y en la última semana en esta Bizkaia nuestra. Lo que ha sucedido, lo que ha sucedido en las sedes de los partidos políticos de muchos/as representantes políticos/as. ¿Nos encontramos bien con eso? ¿Bien? ¿Nos encontramos cómodos/as? Ahí sí ha ocurrido que, también se ha dicho públicamente, una organización interna suya ha realizado una serie de pintadas contra la Ertzaintza. Eso es lo que ha hecho, y ustedes cogobiernan ahí, puesto que se trata de una organización interna suya.

No se pueden aceptar esas cosas, no pueden estar así y, de repente, venir aquí y decir que debemos trabajar en cogobernanza. No, eso no es bueno para nadie. ¿Qué es lo que hay detrás de eso? Una división. No se suma, se divide. Se hace ruido en la sociedad y se divide. Así no podemos, no podemos decir con una mano que queremos una cogobernanza, que queremos participar y que nos están silenciando, y, por otra parte, como consecuencia de una serie de pintadas en las sedes, decir a los/as ertzainas “atad a vuestros perros”. No, cuando hacemos cosas, debemos ser consecuentes, debemos ser consecuentes.

Ha hablado de la participación y de los informes anuales. Como ya les hemos explicado, disponemos de una metodología, y, este año, van a tener en sus manos el informe del primer semestre, y nosotros/as, si la pandemia nos permite, haremos lo que tenemos que hacer. Dice que le pareció algo positivo que alcanzáramos una serie de acuerdos. Sí, a mí también me pareció algo positivo, y reconozco que para mí fueron importantes las mociones logradas en su momento tras ese Pleno de Política General. Ahí se veía que abrimos un camino, pero allí dijimos públicamente: veamos qué ocurre en los presupuestos, porque, como hemos dicho, el presupuesto es la herramienta más importante con la que contamos, y luego no sirve, habrá algunos acuerdos puntuales, pero esa herramienta es muy, muy útil, para medir las políticas y guiar la política.

¿Qué sucedió ahí? Pues, que no estuvieron. Sin embargo, no estuvieron, no porque no hubiéramos hablado. Sí hablamos, pero para mí cuando decimos que no hay acuerdo,

no pretendo insinuar que alguien tiene la culpa. No, seguramente será por culpa de ambas partes, pero lo importante son las actitudes, las actitudes, qué actitudes mostramos. En la actitud, se veía que lo que era posible en otros sitios, geográficamente, en otros lugares, lo que era posible realizar allí, aquí no, aquí no, en casa resulta imposible decir que sí a algo. De ninguna manera podemos aprobar ningún presupuesto. Ahora, fuera de aquí, sí, eso es posible.

Para mí, eso era un tacticismo. En esa posición, no comprendo por qué decidieron hacer eso. No entiendo por qué en Madrid por cuatro perras gordas, y cuando no lo necesitaban, dijeron que sí al presupuesto de un gobierno. Le dijeron que sí por cuatro perras gordas, y aquí, en casa, que no. Que no, se les planteó si podían reflexionar sobre el sí y que resultaba imposible decir que sí. Esa fue la respuesta que recibimos de ustedes. Allí sí, aquí no. Existe un refrán al respecto, que puede servir en este caso: “candil de la calle, oscuridad de su casa”.

Eso es lo que ustedes hicieron en los presupuestos. Desaparecieron, desaparecieron. Han tenido su oportunidad. Cuando hablan de la mano, ahí han tenido su oportunidad. Además, me gustaría estar equivocado y que de aquí en adelante también aprovecháramos esas oportunidades. Sin embargo, con esa responsabilidad social que estamos viendo que tienen y con esa ruptura social, yo lo veo realmente complicado. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Diputado General. Punto tercero del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

3.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Interpelación  
([R.E.11/E/2021/0001750](#))

**Autor:** De Madariaga Martin, Eneritz (EB)

**Asunto:** El cumplimiento del deber de la Diputación Foral y sus miembros de proporcionar a las Juntas Generales la información y ayuda que precisen.

**Documento Principal:**  
([R.E.11/E/2021/0001750](#))

**Expediente:** ([11/B/18/0002409](#))

3.- Honako idatzi hau aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Itauna  
([11/E/2021/0001750SE](#))

**Egilea:** De Madariaga Martin, Eneritz (EB)

**Gaia:** Foru Aldundiak eta bertako kideek Batzar Nagusiei behar daben informazioa eta laguntasuna emoteko daben betebeharra betetea

**Dokumentu nagusia:** ([11/E/2021/0001750SE](#))

**Espedientea:** ([11/B/18/0002409](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Corresponde el turno a la juntera que ha presentado la iniciativa. Por tanto, señora De Madariaga Martín, tiene la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as. Oro har, herritarrek Bizkaian daukagun demokrazia-mailearen inguruan daukien perzeptzioa nahikoa handia dala uste dogu. Dana dala, gaurko eztabaidea entzun eta bertan parte hartu ostean, argi eta garbi daukat oposizino taldeok eretxi berekoak ez garana. Perzeptzio hori, ona, demokrazia-maila handiaren ingurukoa, finkatu

egiten da administrazioak egiten dauzan publizitatearen eta propagandaren bidez, gobernantza-eredua berbabide daukien eta gardentasunean, herritarren partaidetzan eta gobernu onean oinarrituta dagozan diskurso goratuaren bidez. Egia esan, oster, zenbat dago horretatik guztitik? Zein da Foru Gobernu honen benetako gardentasun-mailea? Zein da Foru Gobernu honen herritarren benetako partaidetzearen mailea?

Antza danez, gobernuak adierazle horreen aldeko apustua egin dau, kalidade demokratikoaren estandar europar onenen parean dagoan gobernantza-eredua eukiteko. Gure eretziz, elementu honeek garrantzitsuak dira, kontuan hartu beharrekoak dira: gardentasuna, herritarren partaidetzea, gobernu ona, berbea, berbea emotea, ahaldun nagusiak esan dauanez. Halanda be, beste eredu batzuk be badagoz: justizia soziala, bardintasuna, ustelkeria-mailak, ate birakariak, klientelismoa eta hemen, Bizkaian, danok nahikoa ondo ezagutzen doguzan beste elementu asko.

Geuk be badakigu zeinen gatxa dan instituzino honen kalidade demokratikoaren mailea neurtzen daben elementuak topetea. Gure ustetan, hausnarketa hori egiten hasteko orduan, oinarri ona izan daitekez Guillermo O'Donnellen berbak. Bere esanetan, demokrazia ez da erregimen demokratikoa bakarrik, Estaduaren eta herritarren arteko eta herritarren euren arteko hartu-emonetarako eredu berezia be badalako. Zuzenbide-estaduaren motearen eraginpean, herritar politikoakaz batera eusten deutse herritar zibilei eta egoerearen barri emoteko sare osoari. Beste era batera esanda, podere politikoaren kontrola, gobernuaren ekintzearen kontrola funtsezko ardatza da kalidadeko demokrazia eukiteko, eta gai hori berori da gaur bertan jorratu gura doguna.

Gure ordenamentu juridikoan, gobernuaren ekintzea kontrolatuko eginkizuna azaltzen da, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Instituzinoen Aukeraketeari, Antolakuntzeari, Araubideari eta Jardunbideari buruzko 3/87 Foru Arauan, hain zuzen be. Bere 4. artikuluan, gai interesgarri bi azaltzen dira: Batzar Nagusiak Bizkaiko Lurralde Historikoko herritarren ordezkarietarako eta partaidetzarako organu gorena dira. Batzar Nagusiek arauak egiteko ahala daukie Foru Arau honetan zehaztutako baldintzetan, ahalduna aukeratzen dabe, Aldundiak proponidutako aurrekontuak onartzen dabez eta Aldundiaren ekintzea kontrolatzen dabe. Nabarmendu beharreko elementu bi: herritarren ordezkarietarako eta partaidetzarako organua eta gobernuaren ekintzearen kontrola. Bere 7. artikulua 1 c) idatz-zatian adierazoten danez, Batzar Nagusiek kontrolau eta bultzatu behar dabe Aldundiaren jarduketea, eta, horretarako, helburu horreek beteteko informazio egokia eukiko dabe.

Halanda ze, informazioa funtsezko elementua da, eta, horri esker, sustapen-jarduketak garatu daitekez, baina, horrezaz ganera, gobernuaren ekintzea kontrolatukoak be bai. Legealdi honetan, oster, Foru Aldundiko Gobernuak ez dau beharko leukean neurrian beteten informazio hori emoteko daukan betebeharra. Hori dala eta, ez dauz bere betebeharrak beteten, eta, aldi berean, Foru Gobernu honen gardentasun-mailea jarten dau kolokan eta, horren ondorioz, demokrazia-mailea be bai.

Gure taldeak agiriak eskuratzeko egin dauzan eskabideei jagokenez, berbarako, 68 agiri-eskabide izan dira batzarren azken epealdi honetan egin diranak. Hau da, 2020ko irailetik gaur arte. Holantxe egin gura izan dogu, pandemiak Foru Gobernuaren eta bertako sailen eginkizun batzuetan euki dauan eraginaren ondorioz datuetan jazo leitekean alborapena ekiditeko. Erantzun horreen %44 epez kanpo jaso dira edo, nahi-ta epea amaitu, ez da oraindokarren erantzunik jaso. Agiri horreek kasuen %73n barriro eskatu diran arren. Erantzunen zain gagoz oraindokarren, agiri-eskabideak 2020ko urrian eta zementian egin ziran arren. Sail guztien jokabidea berbera ez dala esan behar dot, eta, gardentasun faltari jagokenez, honako sail honek dira tamalgarrienak: Gizarte Ekintza, Sustapen Ekonomikoa, Instituzionala eta Kultura. Bertan, hain zuzen be, oposizio taldeen kontrola oztopatzeko ahaleginean, ez dabez epeak beteten aurkezten diran agiri-eskabideen %70-%80n.

Foru Gobernuak emoten dauan informazioaren kalidadeari erreparetan badeutsagu, egoereak txarrera egiten dau modu nabarian. Lehenengo eta behin, espedientea kontsultetako orduan taldeak Aldundiko bulegoetara bialtzeko joerea da nagusi, agirien kopurua txikia danean be bai. Administrazioaren digitalizazioari buruz berba egiten dozue zuok, baina herritarren digitalizazioari buruz batez be, ez dodalako ikusten zuona abian jarten dozuenik.

Proiektu zehatz baten agiriak eskatzen dira, Gobernuaren Legealdiko Planera joteko esaten deuskue, Bizkaia Egiten Planeko hiru lerro eta erdik zeozer azalduko baleuskue lez.

Jaso doguzan erantzunetatik, erdiei baino gehiagori eskatutakoagaz bat ez datozen agirien bidez erantzun deutse Aldundiak. Idatziz egin doguzan galderei jagokenez, batzarren azken epealdi honetan egindako 77 galderetatik, %44 ez dira erantzun, edo epez kanpo erantzun dira. Kasu honetan, sailen gardentasun-mailea be desbardina da, eta, barriro be, tamalgarria da sail honeetan: Gizarte Ekintza, Sustapen Ekonomikoa, Kultura eta Enplegua.

Erantzunen kalidadea be nahikoa txikia da, baina, batez be, erantzunak osotu bakoak, jeneralistak diralako eta egiten dan itaun zehatzari erantzuten ez jakolako edo datu itxuraldatuak edo nahasiak emoten diralako.

Nire taldearen eretxiz, hau, nabaritasunez eta gurata, Foru Gobernuak egindako ahalegina da, oposizinoko taldeen kontrola oztotatzeko. Hori dala eta, aldi berean, herritarren kontroletik iges egiten dauan instituzino opakoa da Foru Aldundia.

Gaur, zuok, nire aurretik berbabide izan dan itaunean, Partaidetza Plana aitatu dozue, Gardentasunari buruzko Foru Araua be badago, kogobernantza ulertzeko eredu desbardinei buruz berba egiten dozue, baina nire taldeak lepoan daroazan errealidadearen eta esperientziaren arabera, berbarako, egia esan, ez dira oposizinoko taldeek egiten dabezan proposamenak kontuan hartzen. Izan be, aurkeztu egiten dira, ezezko botoa emoten da eta, 5-10 kasutan, hilebeteak igarotakoan, proposamen horreek desgaraian garatzen dira, hilebeteak geroago, eragina txikia danean, baina modu berean egiten dira. Horixe bera da Gobernu honen joko politikoa, estrategia politikoa, hau da, herritarren preminei ez erantzutea, baina, bai, bere alderdiaren interes partikularrei.

Gardentasun faltearen, batetik, partaidetza faltearen gai honen inguruko esperientzia mugabakoak. Adostasunei buruz berba egiten dozue, baina hori be ez da jazoten, Ganbera honetan mugarri garrantzitsua diran aurrekontuetan be ez zan jazo hori. Halanda ze, uste dot ikasbide gitxi emon ahal deuskuzuela.

Horregaitik, Foru Aldundiko presidentea eta ordezkari gorena danez eta, Foru Arau honen, 3/87, 27. artikuluan adierazotakoaren arabera, hori dala eta Batzar Nagusiei eurek eskatzen dabezan informazioa eta laguntzea emon behar deutsezala ulertzen danez, ahaldun nagusiarri itandu gura geuntsan Aldundiak zer neurri jarriko dauzan abian, gardentasunean eta demokrazian oinarrituta Batzar Nagusiei behar dabezan informazioa eta laguntzea emoteko betebeharra beteteko. Besterik ez. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora De Madariaga Martín. En el turno de réplica, señora Etxanobe Landajuela, portavoz de la Diputación, tiene la palabra.

La Sra. **ETXANOBE LANDAJUELA** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as. Señora De Madariaga, ha citado la Norma Foral 3/87 en su intervención, y yo también la mencionaré, como fundamento para responder a lo que solicita en

su interpelación. Esan dodanez, 3/87 Foru Araua aitatu dozu. Arau horrek, hain zuzen be, ondo esan dozunez, Batzar Nagusioen eginkizunak arautzen dauz. Lehenengoa lurralde historikoen eskumenekoak diran arloetako foru-arau orokorrak emoteko eginkizuna izango litzateke. Bigarrena, badakizuenek, dekretuen garapenak emoteko eginkizuna, betibe, gaitasun hori Aldundiari berariaz esleitu ez bajako. Hirugarrena, hain zuzen be, Foru Aldundiaren jarduketea kontrolatuko eta bultzatzeko eginkizuna.

Era berean, 7.1.c) artikulua be aitatu dozu, eta, bertan adierazoten danez, hain zuzen be, Foru Aldundiaren jarduketea kontrolatu eta bultzatu egin behar dabe, eta, horretarako, helburu horreek beteteko informazioa egokia eukiko dabe.

A continuación, pregunta qué medidas va a poner en marcha esta Diputación Foral de Bizkaia, para, en parámetros de transparencia y democracia, facilitar a esta Junta General la información y la ayuda que precise. Esan dodanez, itandu egiten dozu Foru Aldundiak zer neurri jarriko dauzan abian, gardentasunean eta demokrazian oinarrituta Batzar Nagusiei behar dabezan informazioa eta laguntzea emoteko daukan betebeharra beteteko. Adierazo egin behar deusut badagoala Batzarrotan ordezkariak daukien taldeek Gobernuaren ekintzea kontrolatuko behar dabezan mekanismoak atontzen dauzan arauazko esparrua, eta Aldundi honek kontrol horri men egiten deus, zer esanik ez.

Arauzko esparrura itzuliko naz. 3/87 Foru Arauaren aurreikuspenen osogari dira Batzarron araudiaren berarenak. Hain zuzen be, bertako seigarren titulu osoan arautzen dira gobernuaren ekintzea bultzatzeko eta kontrolatuko mekanismoak. Holan, bada, 47. artikuluan adierazoten da Aldundia, esate baterako, Batzar Nagusietara joan behar dala osoko batzarretan eta batzordeetan, Batzarrek egiten dabezan eskeei, galderei, itaunei eta mozinoei erantzun behar deus eta, hain zuzen be, behar dabezan informazioa zein laguntzea emon deus.

Halanda ze, badakigu zein diran jokoaren arauak eta errespetatu egiten doguz. Halanda be, Gobernuaren kudeaketea bera buztartu behar dogu eskakizunei erantzuteko betebeharragaz, eta hori ez da beti erraza, arabere gehiago, gaur egun bizi doguzanak lako uneetan. Hobetzeko marjinea dago beti, eta Gobernu hau hobetzeko ahalegin horretan topauko dozu beti; izan be, badinotsudanez, gardentasunaren inguruko konpromisoa benetakoa da, eta Batzar Nagusiokaz daukagun hartu-emonera be hedatzen da.

Nuestro compromiso con la transparencia, con la información y, cómo no, con la democracia también. Konpromiso irmeena daukagu gardentasunagaz, informazioagaz eta, zelan ez, demokraziagaz be bai.

Demokrazia hori Ganbera honen osoketan be islatzen da, herritarrek hauteskundeetan askatasunez adierazotako gurariaren edo konfiantzearen erakusgarri. Batzarrok Bizkaiko herritarren aginduaren adierazgarri dira.

Eztabaidatuezina da herritarrei informazioa emoteko konpromisoa dagoana Bizkaiko Foru Aldundian. Horren erakusgarri, zorrotz-zorrotz beteten da gardentasunari buruzko arautegia. Bertan, ganera, oinarritzko arautegian eskatutako gaitasuneko estandarretatik harago goaz, eta hori guztia Gardentasunari buruzko Foru Arauan gauzatzen da. Aldundia lehenengo postuetan agertzen da administrazio publiko gardenenaren sailkapenean. Hobetzeko gabilz lanean, eta, horretarako, ahal dan informazio guztia emoten dogu argitara erabilerrazagoak diran formatuetan.

Edozelan be, gure berbabidera, Aldundiaren kontrolera itzuliko naz, zure eretziz ez daualako behar dauan lez beteten informazioa emoteko betebeharra. Onartuko deustazu esatea ez dodala uste hori errealidadea danik modu objektiboan. Batzarrek gobernu hau kontrolatan dabena egiaztetan daben datuak emongo deus. Legealdi honetan, orain



arte, Aldundi honek 1.310 kontrol-ekimeni erantzun deuse, eta eurretatik, 240 informazio-eskaerak dira; 359, idatzizko erantzunak; 184, agerraldi-eskaerak; eta 197, ahozko erantzun-eskeak.

1.310 iniciativas de control. Esos son los datos. Erantzundako kontrol-ekimenei buruzko datuak dira, eta arabere gehiago esango deusut. Joan dan legealdian, 4.946 izan ziran. Ziurtatu egiten deusut, eta uste dot ez dala nire eretxia bakarrik, Batzar Nagusiotan lehenago inoiz ikusi ez diran magnitudeak dirana.

Datuetatik harago, idea bi be igorri gura neuskizuz. Lehenengoa, gizarteak xede bat agindu deusku, gobernetea, alegia. Bere konfiantzea emon deusku, eta, konfiantza horren arabera, erabagiak hartu behar doguz eta hartzen doguz egunero. Edozein kasutan, eta igorri gura neutsun bigarren ideia da hau, ezarri behar doguzan jokoaren arauakaz daukagun konpromisoa da. Gure gehiengoa bateragarria da gobernu gardenaren borondate irme baizen zintzoagaz, baita batzarkide-taldeen lanaren errespetuagaz be, Aldundi honek daukan informazioa emoten jake-eta.

Era berean, erantzunbeharra eskatu gura neuskie taldeei, danok eginbehar bera daukagula uste dot-eta, benetan garrantzitsua danari erantzutea, alegia. Bizkaiko herritarren preminak dira garrantzitsuena. Ostantzean, zein da gure eginbeharra? Gobernetan dauana zelan edo halan akitzea? Hortxe itxiko dot, eta amaitzeaz nago. Amaitzeko, datuak gogorarazo gura deusudaz, eta, era berean, Gobernu moduan jagokuna beteteko konpromisoa daukaguna berresten deusut. Hain zuzen be, Aldundiak bete beharreko Foru Araua dago, eta hobetu daitekeana hobetzeko konpromisoa be eskaintzen deusut. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Etxanobe Landajuela. En el turno de réplica, señora De Madariaga Martín, portavoz del grupo Elkarrekin Bizkaia, tiene la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Muchas gracias zeuri be, Elixabete andrea. Apur bat nahastauta itxi nozu. Batetik, "hobetu daikaguna hobetzeko konpromisoa hartzen dogu, baina ezin hobeto egiten gabilz". Halanda ze, ez dakit benetan konturatzen zarien zeozer hobetu behar dozuen edo ez, benetan.

Mezuko asmo bikotx hori edonor nahastetako modukoa da. Hori dala eta, argitasun handiagoz entzun gura neuskizu hurrengoan, bai, egia dalako askori erantzuten deusezuna, baina ez gabilz berbetan kopuruari buruz, kalidadeari buruz be bagabilzalako berbetan. Neuk be emon deusudaz datuak, kasuen %70-%80n atzeratu egiten zariela ikusi daiten. Kasu askotan, ganera, eta egin dogun azterketearen arabera erantzunen %65,7ri buruz berbetan gagozala esango neuskizu, ez dira erantzuten, edo ez deusie egin dogun galdera edo agiri-eskaera zehatzari erantzuten. Nik neuk mahai ganean jarten deusudazan datuak be badira horreek.

Zure esanetan, instituzino honen kalidade instituzionalaren mailea handia da. Bai, egia da, neuk be irakurri dot. Dana dala, hasieran be esaten neutsun gauza bat dala gure lurraldeko herritarrek daukien perzeptzioa. Zuok berbabide daukazuen inkesta hori, balorazino hori banatzen dan inkestearen bidez egiten da, eta eskualde edo lurralde bateko herritarrek oso gai zehatzei buruz zer perzeptzino daukien jakitea da helburua. Hori bai, egia da zer galdetzen dan eta zelan galdetzen dan kontuan hartuta, emoitzak diranak dirana. Edozelan be, barriro joko dot, zeuk be lehen esan dozunez, emon deusudazan datuetara.

Zure esanetan, gardentasunagaz eta demokraziagaz daukazuen konpromisoa zintzoa da, jokoaren arauak ezagutzen dozuez, errespetau egiten dozuez. Hori,

barriz, ez da egia, eta argi baino argiago itxi deusudala uste dot emon deusudazan datuen bidez. Gauza bat da zeuok dinozuen, gai honen inguruan egiten dozuen marketina, eta beste gauza bat da egunez egunekoan egiten dozuen benetako praktikea.

Ez zagoze oposizinoko taldeakaz kunpliduten, eta Ganbera honetan herritarren zati handi bat ordeztan dabena dira. Zuok, zelan edo halan, zera dinozue: “gu geu bagara herritarren zati handi baten ordezkariak”. Seguruenik, hori holantxe izango da, baina demokrazia ez da bozkatea bakarrik. Azkenean, demokrazia botokrazia bihurtzen badogu, egia ostentzen dau. Goikoek benetako poderea metatzen dabe, eta behekoek pairatu egiten dogu, baina, horrezaz ganera, uste dogu eta barruntau egiten dogu partaidetzazko gobernu garden honetan parte hartzen eta erabagiten gagozala, hori holantxe ez danean.

Ez zabilze kunpliduten, eta ez zagoze kunpliduten, Foru Arauak hori egitera behartzen zaituena jakin arren. Informazioa desgaraian emoten dozue, datuak ostentzen zagoze, nahastau egiten dozuez eta egoera politikoaren edo zuok alderdi politiko moduan daukazuen komenientziaren arabera doa hau. Hau ez da gardena izatea, eta hau ez da gobernu izatea, hau ez da demokrazia, zuok azaltzen ahalegintzen zagozen lez. Herritarren eskubideak ezin dira egon EAJri edo Foru Aldundiko unean uneko Gobernuari ondo jatorrearen zoriaren mende. Jentearen eskubideak ez dira EAJk egin gura dauan estrategia politikoaren edo joko politikoaren parte izan behar. Nire eretziz, baleiteke hori Ortuzarrek Sabin Etxeatik egin beharrekoa izatea, baina ez Foru Gobernu honek. Zeuon betebeharrak bete eizuez, orain arte ez dozuelako holakorik egin. Ganera, argi dago, eta gehien kezkatzen gaituana da, eretxia be kontuan hartzen ez zabilzena, Ganbera honetan gardenak be ez zariena herritarren ordezkariakaz. Halanda ze, askoz be gitxiago izango zarie herritarrekaz. Partaidetzazko prozesuak edo egoerearen barri emoteko prozesuak edo informazio publikoa eskuratzeko prozesuak abian jartean lortu dozuezan emoitzak ikusi besterik ez dago, gaiari buruz egin barri diran txostenak dagoz-eta.

Kasu honetan, zeuok be, zeuk aitatu dozu, ganera, Gardentasunari buruzko Foru Araua betetera behartuta zagoze. Nik gaur bertan eskatu gura deusuet oposizinoko taldeen kontrola gehiagotan oztopatu ez daizuela, zuon Gobernuak benetako konpromisoa hartu daijala, gardentasunari, partaidetzeari zein gobernu onari buruzko propaganda gehiago egin ez daizuela eta zeuon betebeharrak behar dan lez bete daizuezala.

Horrezaz ganera, gogoratu egin gura geunskizu, eta honek zerikusit handia dauka EH Bilduko eta Alderdi Popularreko ordezkariak gaur goizean egin dabezan beste ekarpen batzuekaz, hain zuzen be informazioaren lorpena dala bultzatzeko eta herritarren errealidadearen hobekuntzarako proposamen zehatzak egiteko aukerea emoten deuskuna. Horixe bera be bada zuok oztopatzen zabilzena.

Zure esanetan, “zer egoeratan gagozan kontuan hartuta, ahal doguna” egiten dozue. Ulertu egiten dot. Hain zuzen be, horrexegaitik ez dot pandemiako une latzeneko daturik emon, zuokaz arteza izan gura nebalako. Dana dala, hamarkadak daroaguz holan lan egiten. Zeozelako hobekuntzarik egon dala? Ez deusut ukatuko, baina oraindakarren...

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señora De Madariaga Martín, vaya terminando.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: ...oraindakarren ezin dogu ezelan be esan gobernu ona daukan partaidetzazko instituzino gardena garanik. Besterik ez. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora De Madariaga Martín. Por último, en el turno de réplica, señora Etxanobe Landajuela, portavoz de la Diputación, tiene la palabra.

La Sra. **ETXANOBE LANDAJUELA** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. De Madariaga andrea, onartuko deustazu eretxi berekoa ez izatea. Nire ustetan, azaltzen zabilzan egoerea ez dator bat errealidadeagaz, eta, horretarako, emon dogun erantzunari buruzko datuak jarri deustudaz mahai ganean. Horrezaz ganera, joan dan legealdian erantzun ziran ekimen guztiei buruzko datuak aitatu dodaz. Era berean, erkatu ezker, ez daukadaz ehunekoak, baina Aldundian sarrerea daukien ekimenak urteerea emoten jakenakaz erkatzen badoguz, erantzuna daukienen kopurua ikaragarria da. Horixe bera da apur bat esan ahal deustudana.

Suposizinoren bat be aitatu dozu, eta, bertan, espedienteak ikusteko, Foru Aldundiko bulegoetara joan zaitezela eskatzen jatzue. Zuk badakizu suposizino hori araudian bertan dagoana araututa. Araudian bertan zehazten da zer suposizinotan eskatu ahal jakon batzarkide-taldeari Aldundira joan daitela agiri horreek ikusten eta ez diran agiriak bialtzen, hau da, agirien kopurua larregizkoa danean, zedarripenaren zailtasunagaitik beharrezkoa danean edo agirien izaerea generiko mugabakoa danean.

Besteak beste, bide hau erabilten da informazioa era telematikoan edo paperean bialdu baino lehen egiaztatu egin behar dalako informazio horrek ezelako datu personalik ez daukana. Era berean, adierazo egiten deustut ez dala lar erabili behar dan formula, baina araudian dagoan formula be badala esan behar dot.

Horrezaz ganera, aitatu egin dozu berandu erantzuten dala, erantzunak zehaztubakoak dirala. Nik neuk esan egin ahal deustut oro har eparean barruan erantzuteko ahalegina egiten dala. Dana dala, badinotsut uneren batean atzerapenen bat emon ahal izan dala. Edozelan be, hori ez da joera nagusia. Era berean, badinotsut askotan, eta subjektibotasunaren arloan, balorazioak izan daitekezanaren arloan sartzen gara orain, Aldundiak erantzun egiten dauala eta, kasu honetan, uste dozue, adierazo dozun lez, erantzuna ez dala behar baizen zehatza edo nahikoa. Esan deustudanez, balorazio subjektiboen esparruan sartzen gara, eta, horreen aurrean, erantzunari buruzko datuak emongo deustudaz barriro. Erantzunari buruzko datuek Aldundi honek bete egiten dauala adierazoten dabe. Aldundi hau, lehen adierazo danez, batzordeetara joaten da beti, osoko batzarretarako etorten da beti eta galdera guztiei erantzuten deutse. Barriro dinotsut, eta amaitzear nago, borondate zintzo baizen irmea daukagu, jokoaren arauak eta ezarri beharreko indarreko arautegian zehaztutakoaren arabera bete behar dogun guztia beteteko. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Etxanobe Landajuela. Punto cuarto del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

4.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Interpelación  
([R.E.11/E/2021/0001756](#))

**Autor:** Duque Santacoloma, Izaskun (EHB)

**Asunto:** Instituto Foral de Asistencia Social

4.- Honako idatzi hau aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Itauna  
([11/E/2021/0001756SE](#))

**Egilea:** Duque Santacoloma, Izaskun (EHB)

**Gaia:** Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea

**Documento**  
[\(R.E.11/E/2021/0001756\)](#)  
**Expediente:** [\(11/B/18/0002413\)](#)

**Principal:**

**Dokumentu nagusia:** [\(11/E/2021/0001756SE\)](#)  
**Espedientea:** [\(11/B/18/0002413\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señora Duque Santacoloma, tiene la palabra.

La Sra. **DUQUE SANTACOLOMA** andreak: Muchas gracias. Buenos días a todos/as. El Instituto Foral de Asistencia Social de la Diputación, su Comité de Empresa (formado por los sindicatos LAB, ELA, UGT, CCOO y Satse), en una comparecencia realizada en la Comisión en el mes de enero, nos manifestó a todos los partidos que estaban preocupados/as por los acontecimientos que estaban sucediendo en el instituto foral. En EH Bildu también estamos preocupados/as, muy preocupados/as. Los cambios realizados en el instituto foral en los últimos meses, además, cuando estábamos en plena situación de pandemia, creemos que responden a una estrategia de privatización previa.

Aldundiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeko Enpresa Batzordea lez, geu be kezkatuta gagoz. Oso kezkatuta gagoz, azken hilebeteotan zerbitzu publikoen pribatizaziorako urrats handiak emon dirala ikusi dogulako. Zentroak zarratzea, plaza publikoak gitxitzea, zerbitzuak kanporatzea. Epe ertain-luzeari begira Gizarte Ekintza Sailak Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearentzat daukazan planen inguruko ziurbakotasuna dago beharginen artean. Egia esan, EH Bildun, ziurbakotasun hori eta kezka hori ulertzen doguz.

El Instituto Foral de Asistencia Social tiene como objetivo brindar una atención integral y personalizada, especialmente, a las personas con necesidades complejas. Para ello, ha de facilitar y garantizar unos servicios y recursos sociales específicos y de calidad, para ayudar a las personas usuarias y a sus familias a disfrutar de una vida digna. El instituto foral surgió como una vía de mejora de la calidad de vida y el bienestar de la ciudadanía.

Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea Bizkaian bizi garan guztion eta, batez be, premina gatak edo egoera zaurgarria daukiezanen bizi-kalidatea eta ondoizatea hobetzeko bide moduan sortu zan.

Erakundeon urgazpenerako eskaintzen diran zerbitzuen barruan, honako hirurak nabarmentzen dira:

- ume eta nerabeentzako zerbitzua
- desgaituentzako zerbitzua eta gizarte-inklusinoa
- edadekoentzako osasun eta gizarte zerbitzuak.

Hiru zerbitzu horreei buruz berba egingo dot. Lehenengo eta behin, abegirako baliabideak, ume eta nerabeentzako egoitza-abegiagaz zerikusia daukienak. Agerraldi horretan eskaini ziran datu batzuk emongo dodaz. Umeentzako egoitza-sarean, eskaintzen diran plaza guztietatik, 818 gitxi gorabehera, %86,5, kudeaketa pribadukoak dira. Hori holantxe da, apurka-apurka zentro asko zarratu diralako (Zurbarango etxea, Dolaretzeko abegi sozialerako unidatea, Murrieta etxea, etxe erdiautonomoa, Atxuri-Errekaldeko haurtzaindegia, Uribarriko zentroa, Loiuko zentroa). Hori jazo bitartean, ostera, kudeaketa pribaduko zentroak sortzen ziran apurka-apurka.

Desgaituentzako zerbitzuei jagokenez, ados gagoz Gizarte Ekintzako diputaduak, Sergio Murillok, behin eta barriro adierazo dauanagaz, hau da, dibersidade funtzionala daukienentzako plazen eskaereak gora egin dauala eta, horren ondorioz, giza talde

horri eskaintzeko plaza barriak euki behar dirala. Horraino ailegetan da adostasuna, bat gatoz diagnostikoan. Edozelan be, gabezia horri aurre egiteko hartutako neurrien ondorioz edadekoentzako egoitza-plazak desagertu edo galdu egiten badira, agirikoa da diagnostikoraino ailegaurko dana adostasuna eta ez ezarten zabilzen neurri horreetara. Izan be, desgaitasuna, dibersidade funtzionala daukientzako plazak behar badira, eta horregaz ados gagoz, esan dodanez, beharginen kopurua gehitu beharko geunke, Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen menpeko zentro barriak edegi beharko geunkez. Hori, barriz, ez da azken urteotan jazo.

A mediados del mes de noviembre, procedieron a la privatización del centro de día Lurgorri de Gernika. Dicho centro prestaba un servicio público a 15 personas con diversidad funcional. Hoy en día, es gestionado por una entidad privada. El convenio de colaboración entre la Diputación y el Gobierno Vasco para la atención sociosanitaria de personas con trastorno mental grave se ha ampliado en 44 plazas, y eso está bien, como así lo dijimos. De las cuales, 25 se han puesto en marcha en la Casa del Mar de Santurtzi. La plantilla, en cambio, y debemos decirlo, no se ha ampliado. Se deben activar otras 19 plazas. En una Comisión, nos comentó el Diputado Sergio Murillo que se iban a poner en marcha en la comarca de Uribe. Esa es nuestra preocupación, ¿dónde van a activar esas plazas? Al igual que hicieron en Gallarta, ¿van a activarlas en esa residencia de Loiu, que es una residencia de personas mayores, o en otro lugar? La pregunta.

Edadekoentzako, desgaituentzako eta edadebakoentzako plaza gehien-gehien kudeaketea esku pribaduetan ixtea erabagi da. Zentroak eta beharginak gehitu barik, aldaketa kosmetikoak egiten dira, eta, horretarako, zerbitzu batzuk pribatizetan dira, zentro batzuk beste batzuetara, beste leku batzuetara aldatzen dira, birkokapenak egiten dira, diranak eta ez diranak egiten dira..., baina kudeaketa publiko zuzena desagertzen doa. Gaur egun, desgaituentzako 1.200 inguru egoitza-plazetatik, GUFek %23 kudeatzen dauz modu publikoan.

Hirugarren blokea, edadekoentzako egoitzak. Behin eta barriro esan dogunez, 154 egoitza daukaguz, eta 10.748 plaza daukiez danetara. Plaza horreetatik guztietatik, %2,5 baino ez dira kudeaketa publikokoak, Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen menpekoak. Era publikoan kudeatutako edadekoentzako hiru egoitza baino ez geunkazan. Gallartakoa zarratu ostean, barriz, bi baino ez daukaguz: Elorrikoa eta Leioakoa. Gallartakoa edadekoentzako zentro moduan zarratutakoan, egoitza bi baino ez daukaguz, esan dodan lez, eta guk itandu egiten deusuegu horrek pribatizetako strategiagaz zerikusirik ez daukan.

Sergio Murillo, en la comparecencia del día 12 de enero en las Juntas Generales, argumentó, a modo de justificación del cambio del perfil de usuario/a del centro de atención de Gallarta, que la red de Meatzaldea dispone de una red suficiente para cubrir las necesidades actuales y futuras de las personas de la tercera edad, y que, como respecto a las personas con diversidad funcional se habían detectado una serie de carencias, se ampliarían las plazas. La realidad es la siguiente: han construido y licitado residencias privadas que se van a explotar durante 40 años. Por ejemplo, la residencia Otxartaga cuenta con 120 plazas en Ortuella; y la residencia Marcelo Gangoiti, 122, en Muskiz. Se trata de residencias privadas con un derecho de explotación para 40 años. Ahora, argumentan que la oferta dirigida a las personas mayores es demasiado amplia. Esas residencias privadas las han creado pensando en eso previamente, para continuar convirtiendo en un negocio lucrativo los servicios sociales destinados a la tercera edad.

No se trata de políticas que se están aplicando en estos últimos años, eso viene de lejos, esto proviene de la gestión de este Gobierno y de los gobiernos anteriores. Además, es una realidad que con ese modelo de gestión de servicios públicos condicionan también el modelo de gestión del futuro. Las camas de las residencias públicas siguen disminuyendo, y ya hemos visto que la posibilidad de gestionar desde lo público se encuentra en

porcentajes mínimos, lo que afecta directamente a la calidad del servicio que podemos brindar al colectivo de personas más vulnerables en Bizkaia.

Por ello, planteamos la siguiente pregunta al Diputado de Acción Social, Sergio Murillo: ¿Se van a poner en marcha nuevas plazas de gestión pública del IFAS para la atención de personas mayores? ¿Viendo los últimos cambios realizados en la red residencial del IFAS, tienen la intención de seguir sustituyendo las plazas para personas mayores por plazas para las personas con diversidad funcional? La última, ¿respecto a la plantilla del IFAS, es su intención crear más puestos de trabajo públicos? Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Duque Santacoloma. En el turno de réplica, señor Murillo Corzo, portavoz de la Diputación, tiene la palabra.

El Sr. **MURILLO CORZO** jaunak: Señora Presidenta, junteros/as, buenos días a todos/as. La señora Duque, en nombre del grupo juntero Bildu, me interpela sobre el Instituto Foral de Asistencia Social. Excusándose en los cambios realizados últimamente, así como en otros, hoy, me plantea unas preguntas concretas de cara al futuro. Voy a responder a esas tres preguntas. Yo también lo haré de atrás adelante, empezando por la tercera. Centrándome en la tercera, desde el principio, y me van a permitir que mantenga un poco el suspense, es importante tener en cuenta algo que se estipula en el artículo 18 de los Presupuestos Generales de España.

Por tanto, hoy, en general, voy a intentar exponer los criterios y las directrices que fundamentan los cambios realizados en el IFAS. Porque eso permite explicar los cambios que se han realizado en cada centro. Eso lo he explicado, cada cambio en concreto lo he explicado en estas Juntas Generales, lo he explicado. No voy a hacer alusión a todas, y, además de la Comisión del mes de noviembre que se cita en la motivación, además de la Comisión a la que se ha referido usted, me van a permitir que al menos mencione otras dos, otras dos. Una de ellas, la del día 12 de enero de este año. En la misma, hablé largo y tendido sobre los centros de Mundaka y Gallarta. En la Comisión del pasado 6 de mayo, de hace veinte días, expuse ampliamente todo lo concerniente al centro de Santurtzi. Espero que no quepa ninguna duda de que he dado las explicaciones pertinentes.

Más allá de los centros concretos, voy a intentar exponer cuáles han sido los criterios y las directrices. De hecho, se fundamentan en una serie de necesidades. Expliqué esas necesidades en la Comisión de Acción Social del día 24 de julio, del 24 de julio del año pasado, cuando hablé del despliegue y del mapa de los servicios sociales, de los servicios sociales en Bizkaia. Por tanto, van a ser el punto de partida, y las expuse con toda transparencia aquí, en estas Juntas Generales, en una Comisión, a petición mía, a petición nuestra, a petición del Gobierno, en una comparecencia, y van a ser el punto de partida.

Dana dala, oraingoa une egokia da, batzorde horreetako askotan, azken urtekoetan, batez be, GUFeko, Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeko zentro batzuen bilakaerea azaltzen ibili nazala adierazoteko; Santurtzi, Gallarta edo Mundaka, hain zuzen be. Edozelan be, pandemian ezarten joan garan neurri batzuk be azaldu dodaz, eta, horreetako gehienetan, zeresan handia euki dau GUFek. Horrexegaitik ninoan oraingoa une egokia zala, hori GUFeren eginkizunaren zati bat dana autortzeko, hau da, sare osoarentzat funtsezkoa dan zeregin osogarria eukitea, sarearen zati txikia izanda sare osoari erantzutea eta zeregin osogarria eukitea, sare osotzea. Sarean ez daukaguna, itundu daikeguna, erantzunbehar publikotik, kudeaketa zuzenerako zentroetan egitea Aldundiak kudeaketa zuzenerako daukazan tresnen bidez, Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen bidez, alegia.

Esan dodanez, urtebete baino gehiago daroagu pandemiaren kudeaketan murgilduta, baita GUFek berak be. Ohiko jardueraren bidez egin dabe Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak kudeatzen dauzan zentroetan, eta, gainerakoak lez, esan egingo dot, birusak astindu egin dauz, bai. Izan be, aurreratu genduan, denporeak errazoia emotea baino ez genduan behar, birusak ez ebazalako titulartasunak bereizten.

Dana dala, batez be, GUFek egin dauzan gauzak nabarmendu gura dodaz, GUFeren bidez sare osorako egin doguzan gauzak; berbarako, Birjinetxeko eta Santurtziko zentroak edegitea, edo NBEak hornidutea, edo PCRak egitea, Osakidetzaren tutoretzapean txertoak jartea edo beste zentro batzuetako sektorizazioak sustatzea. Ahalegin eskerga, azkar baino azkarrago eta testuinguru ezezagunean. Horixe bera da oso sare zabalerako tresna bereizgarriaren eginkizuna, eta, bertan, tamainu txikiko zeregina daukan arren, funtsezkoa da modu kualitatiboan.

Por ello, de todo corazón, mi más sincero agradecimiento a todos/as los/as trabajadores/as, desde el/la primero/a hasta el/la último/a, a todos/as los/as trabajadores/as del GUFE. Halanda be, eginkizun hori albo batera itxita, azken urtean badabil eraldatzen, badabil eraldatzen, erantzuteko, gaur egunekoari eta etorkizunekoari erantzun behar deusegulako. El GUFE continúa respondiendo, responde a lo de hoy, a la pandemia, y, de cara al futuro, sigue transformándose. Esa es la función del IFAS, esa es la función de este Gobierno, así como nuestra verdadera vocación, responder a las necesidades actuales y futuras. “Perseverar transformándose”, se lo dije en una Comisión. Transformarse para responder a las necesidades de la sociedad de Bizkaia, y no lo vamos a eludir, aunque sabemos que algunas veces no es el camino más fácil.

Laguntzak personetara egokitu behar dirana, eta ez alderantziz, baiezten badogu, emoten doguzan erantzunak eten barik berrikusi behar doguz derrigorrean. Bizkaiko personek premineari eta laguntzei begira daukiezan profilak. Ganera, horren arabera egokitu behar da zentroen sarea eta ez alderantziz. GUFE sare horren parte da, behin eta barriro esan deusut gaurko agerraldian. Zati bat, baina zati handi bat, kudeaketa zuzenaren zatia.

Halanda ze, norantz goaz? Garagarriaren 24an, Bizkaiko gizarte-zerbitzuen mapea, zabalkundearen gaur eguneko egoera azaldu neban, eta etorkizuneko preminak zein ziran aitatu neban. Esan neutsuenez, Foru Gobernu honentzat ia-ia obsesinoa izango zan desgaituentzako 100 plazatan aurrera egitea. 100 egoitza-plaza gehiago desgaituentzat. Hori guztia abiapuntu batetik egin genduan: diagnostiko osoa, alegia. Izan be, edadekoen arloan, bageunkan, eta holantxe esaten neban berbaz berba, eta ulertu daiten dakart, ia-ia orain dala urtebete azaldu neban-eta, behar besteko sarea edadekoen arloko gaur eguneko preminetarako. Proiekzio demografikoak kontuan hartuta be, Bizkaiak edadekoentzako beharrezko egoitza-azpiegitura sozialak daukaz hurrengo urteetan erantzuteko. Desgaituen arloan, ostera, eta oraintxe aurreratu deusut, iragarri egin neutsuen urteotako, hurrengo garaietako lana, gure ahaleginaren benetako helburua izango zala 100 egoitza-plaza gehiago eranstea. Ganera, ezaugarri batzuk eukiko ebezan, eta beharbada ezagun egingo jatzuez Santurtziri, Mundakari eta Gallartari buruz berba egiten dogunerako. Atsedean hartzeko berariazko plazak, tamainu txikiko zentroak, Bizkaian desgaitasunaren arloan ohikoa dan lez. Halanda ze, hiruzpalau zentrori buruz berba egin beharko geunke ehun bat plazatarako: 33, Mundakan; 25, Santurtzin; 42, Gallartan. 100.

Gure lurraldeak beharrezko azpiegitura sozialak daukaz, etorkizun hurbilari etorkizunerako bermeaz aurre egiteko. Halanda be, ahalegina egin behar dogu, desgaituentzako plaza gehiago eukiteko. Horretan gabilz. Horixe bera da logikea. Preminak, erantzunak.

Horrezaz ganera, Gallarta, gaur eguneko eraketan, baita kopuruan be, 100 plaza horreek. Gallarta, gaur eguneko eraketan, bertan egiten gagozan eraldaketan; eta Mundaka zein Santurtzi, zentro barri moduan. Nahi-ta zuk zentro barriak edegi dirana ukatu, bi edegi dira:

Mundaka eta Santurtzi. GUFEn arlopean, etorkizuneko egoitza-zainketarako ereduagaz bat datorren konzeptinotik eratuko dira. Horixe be bada ahalegina, zenbat ez eze, zelan be bai. Erkidegora zabalik dagozan egoitzak, personentzako etxebizitzak, sanitarizauta ez dagozanak, tamainu txikiko alkarbizitza-unidadeetan antolatuta, uri-guneetan batez be, alkarreragin bateratuaz. Igazko irailaren 28an, berton, ez nintzan ni izan, ahaldun nagusia baino.

GUFEn, kudeaketa zuzeneko zentroetan, eredugarriak izan behar gara, eta eginetan agertu behar gara. Hasteko, zentro txikiak egingo doguz, uri-guneetan, alkarbizitza-unidadeetan antolatuta. Horixe bera da gure lan-lerroa.

Esas son las necesidades, y, conforme a ellas, nuestras directrices. Los cambios llevados a cabo en el IFAS solo son el resultado de eso. A continuación, voy a responder a las tres preguntas, y voy a explicar ese artículo de los Presupuestos Generales de España que antes he dejado en suspenso.

La palabra clave es “erreposizino-tasea”. No tenemos opción, hemos tenido que acometer todos esos cambios manteniendo la relación de puestos de trabajo del IFAS. Nosotros/as seguiremos respondiendo a pesar de todos esos límites e hitos, respondiendo a la ciudadanía de Bizkaia. Esa es nuestra obsesión. Debemos trabajar en ese sentido, en este caso, lamentablemente, pero debemos hacerlo así, y estamos trabajando en ello.

Por tanto, respondiendo a la tercera pregunta, considerando la tasa de reposición, en la relación de puestos de trabajo constan 881, y sigue siendo así. Ni un/a solo/a trabajador/a menos. Hoy en día, no hay ni un/a solo/a trabajador/a menos en el IFAS, menos que el año pasado o hace dos años, ni un/a solo/a menos. Los/as mismos/as, 881, en el LPZ o en la relación de puestos de trabajo, y hemos creado 100 plazas más en el ámbito de la discapacidad en Gallarta, Mundaka y Santurtzi.

Respondiendo a la primera y segunda pregunta, ¿que cómo hemos hecho eso? Cuando una oferta que está cubierta, una oferta que está cubierta o cuando esas necesidades están cubiertas, nosotros/as tomamos los recursos de ahí y los llevamos a donde existen necesidades, porque también podemos cubrir esas necesidades de otra manera. Esa es nuestra labor, tomar decisiones todos los días. Ayer, en el Consejo de Gobierno, en el IFAS. Anteayer, facilitando información a los/as representantes de los/as trabajadores/as. Todos los días, tanto en este último año como en los anteriores, seguiremos trabajando, tomando decisiones, respondiendo. Tomando pequeñas decisiones, más allá de las palabras mejorando Bizkaia. Ese es realmente nuestro compromiso. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Murillo Corzo. En el turno de réplica, señora Duque Santacoloma, portavoz del grupo EH Bildu, tiene la palabra.

La Sra. **DUQUE SANTACOLOMA** andreak: Muchas gracias, Sergio. Muchas gracias por tomarte esos dos últimos minutos para respondernos, de los diez que tenías. Sin embargo, sí, creo que nos has respondido. No son buenas noticias, las noticias que nos has trasladado no son buenas noticias.

Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeari buruz itantzen geuntsun, eta emon deuskuzun erantzuna, EH Bildu aspalditik defendiduten egoan tesia dana, baieztu egin dozu, hau da, foru-erakundeko edo Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen menpeko zerbitzu publikoak pribatizetako estrategia argia dana.



Para responderme a la tercera pregunta has hecho alusión a la “erreposizino-tasea”, pero no nos has hablado ni sobre las categorías de los/as trabajadores/as ni sobre el proceso que habéis llevado a cabo al respecto. Me responderás luego. Porque, en definitiva, esa era una de las preocupaciones que tenían en el Comité de Trabajadores/as. Apurka-apurka, beheragoko kategoriak kendu dozuez: garbiketakoa, mandatariena, sukaldekoa; eta goragoko kategoriak ezarri dozuez. Hori beharginen kategorien eraldaketea dala dinozue. Gure eretxiz, ostera, zerbitzu batzuk pribatizetako estrategiari be erantzuten deutso horrek: sukaldekoa, garbitegikoa, eta abar, eta abar.

Respecto a la primera y segunda pregunta, nos has trasladado argumentos para seguir preocupados/as, porque para mí tu respuesta ha sido muy grave. Has dicho itundu daitekean sarean ez dagoan sarearen osogarri dala GUFÉ. Hau da, GUFÉ plazak ituntzeko aukerea emoten deusuen sare pribaduaren osogarriztat hartzen badozue, lehen esan dodanari erantzuten deutso. Hau da, orain dala gitxira arte edadekoentzat kudeaketa publikopekoak ziran hiru egoitza baino ez geunkazan, eta euretako bat kenduko dozue ganetik.

Horri buruzko galdera zehatz-zehatza egin deusut, eta ez deustazu erantzun. Ea bigarren txandan erantzuten deustazun. Edadekoentzat kudeaketa publikopean geratzen diran egoitza biak beste era bateko profila daukan beste era bateko egoitza bihurtzea dan sail honen helburua. Erantzun ez dozun galdera zehatza da hori. Izan be, estrategia hori jarraitu dozuela ikusi dogu, eta esan egin deusuegu diagnostikoagaz bat etorri geinkezala, desgaituentzako plaza gehiago behar ziralako, baina ez premia horri aurre egiteko hartzen zenbilzen neurriakaz. Hau da, edadekoentzat kudeaketa publikopean dagozan egoitza-zentro guztiak ganetik kentzea.

Fundamentalmente, esas son las tres preguntas que hemos planteado. En los debates anteriores, hemos escuchado muchas cosas sobre el modelo de gobernanza, y, en las intervenciones anteriores, se ha producido un potente debate sobre las iniciativas consensuadas con la oposición o el grado de cumplimiento. También hemos hablado largo y tendido y hemos debatido ampliamente sobre las residencias para personas mayores.

Tú has comentado que el Diputado General también hablaba en ese Debate sobre Política General sobre la necesidad de un cambio en el modelo residencial. Para ello, debíamos poner en marcha unidades de convivencia de pequeña dimensión. Para lo cual, también hemos planteado distintas propuestas, tanto desde EH Bildu como desde los otros dos grupos de la oposición. También hemos planteado propuestas para la mejora de la inspección, para la mejora de la inspección que se realiza en las residencias, y vosotros/as no las habéis aceptado. Eso es todo. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Duque Santacoloma. En el turno de réplica, señor Murillo Corzo, portavoz de la Diputación, tiene la palabra.

El Sr. **MURILLO CORZO** jaunak: Señora Presidenta, junteros/as. Señora Duque, unas preguntas, unas preguntas concretas que se recogían en la interpelación. Voy a intentar responderlas. En la intervención anterior, también me ha preguntado sobre el centro de Loiu. Ya teníamos planificado poner en marcha esas 100 plazas, esas 100 plazas para personas con discapacidad, y lo hemos llevado a cabo estudiando todas las posibilidades que nos brindaba esa relación de puestos de trabajo. Se lo digo sinceramente, y usted también lo sabe, pero hoy lo voy a exponer aquí y lo voy a poner de manifiesto.

Lo hemos llevado a cabo mediante tres procesos: brindando la opción de una promoción interna a los/as trabajadores/as, es decir, a los/as trabajadores/as del IFAS que

estaban en categorías inferiores, les hemos dado la oportunidad, en caso de que tuvieran formación, para que, a través de una promoción interna, ocupen puestos con mayor sueldo y mayor responsabilidad. Esa ha sido la primera opción. La segunda, los traslados y, en algunos casos, la renovación de contratos, para que nadie saliera perjudicado/a. Eso es lo que se ha trabajado con los/as trabajadores/as en 36 reuniones, en 36 reuniones en el último año, y así se ha realizado todo ese cambio. Eso es lo que ha sucedido con las categorías. Sí, mi aspiración, y me gustaría que todos/as la compartiéramos, es que el personal del IFAS cuente con la mayor formación posible, para aportar mayor valor añadido y ofrecer mejores cuidados. Como solo podíamos contar con 881 personas, porque así nos lo han limitado legalmente, no ha sido cosa nuestra, que esas 881 personas contaran con la mayor formación, con el mayor sueldo y con la mayor responsabilidad, y que prestaran los mejores cuidados. Eso es lo que nosotros/as podíamos hacer dentro de esos límites, esa es nuestra elección. Creo que es una opción como para compartirla.

Sinceramente, ¿que a qué respondemos nosotros/as? Lo he dicho claramente, respondemos a nuestras necesidades. Por tanto, las residencias que dispone actualmente el IFAS se sitúan en unas zonas concretas, se localizan en unas zonas concretas de servicios sociales. La de Elorrio, por ejemplo, se encuentra en una zona social concreta, en Durangaldea, concretamente. Analizamos la oferta existente allí, así como la demanda, las necesidades, el número de personas mayores de 65 años. Lo que nos aporta un criterio, y yo, como le he dicho muchas veces a su compañera la señora Urkaregi, los mapas y los planes nos aportan, nos aportan una serie de directrices, y nosotros/as les prestamos atención. Viendo eso, qué demanda existe y qué oferta está construida, en marcha, nos encargamos nosotros/as a través de la gestión directa, como en el caso de Elorrio, o, si no, si hubiera ofertas, nosotros/as mismos formalizamos los convenios, y nos encargamos de algunas plazas. Todo eso estará autorizado por la administración pública, por la Diputación, será inspeccionado por la Diputación, y la ciudadanía recibirá la financiación, recibirá la financiación de la Diputación. Esa es nuestra garantía pública, en todos los casos, independientemente de si se trata de casos del IFAS, de plazas del IFAS o de otras residencias.

Eso es lo que hacemos y queremos hacer, no hay nada más. El IFAS tiene una función específica, no solo complementaria. He comentado que es complementaria y que tiene función de servicio para toda la red. Durante esta pandemia, ha sido muy, muy evidente, y todos/as sabemos y todos/as conocemos qué ha hecho hoy en día el IFAS. Birjinetxe sería el ejemplo primordial, el caso de Birjinetxe, ese es el caso primordial. Por tanto, eso es lo que estamos haciendo con el IFAS. Ese es el camino, no hay nada oculto. Lo que requería el mapa, lo que se refleja en el mapa, lo que la sociedad nos exige en la actualidad, lo hemos adaptado a las necesidades del futuro y a esa herramienta que disponemos, el IFAS. Sabemos que eso requiere pequeñas decisiones todos los días, y las hemos tomado en 36 reuniones. Hemos intentando consensuarlas y, tras consensuarlas, ponerlas en marcha, perjudicando lo menos posible a nadie, a nadie. Ese es el camino que hemos recorrido.

Sabemos que es bastante complicado gobernar, prepararse, prepararse de cara al futuro. Lo sabemos, lo sé. Sin embargo, no vamos, se lo digo sinceramente, no vamos a cejar en el intento. De todas maneras, si hubiera otras propuestas, si hubiera propuestas concretas, estamos dispuestos/as a responderlas, y estamos dispuestos/as a recibirlas, tal y como hemos hecho hasta ahora. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Murillo Corzo. Punto quinto del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

5.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Pregunta oral en pleno ([R.E.11/E/2021/0001635](#))

**Autor:** Escalante Mesón, Israel (EB)

**Asunto:** Estrategia sobre el aprovechamiento de patrimonio industrial

**Documento** **Principal:**  
([R.E.11/E/2021/0001635](#))

**Boletines:** [Admisión a trámite](#) (73A)

**Expediente:** ([11/B/25/0002354](#))

5.- Honako idatzi hau aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Ahozko erantzun-eskea Osokoa ([11/E/2021/0001635SE](#))

**Egilea:** Escalante Mesón, Israel (EB)

**Gaia:** Industria-ondarearen aprobetxamenduari buruzko estrategia

**Dokumentu nagusia:** ([11/E/2021/0001635SE](#))

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea](#) (73A)

**Espedientea:** ([11/B/25/0002354](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Por tanto, corresponde el turno al juntero que ha presentado la iniciativa. Señor Escalante Mesón, tiene la palabra.

El Sr. **ESCALANTE MESÓN** jaunak: Muchas gracias. Buenos días a todos/as. Galderea, zenbait arlori buruzkoa denez, ahaldun nagusiarentzat zan. Izan be, gero azalduko dogun lez, honako honexekaz zerikusia daukien gaiak jorratzen dira bertan: Kultura, Sustapen Ekonomikoa, Azpiegiturak eta Ahaldun Nagusiaren Bulegoa be bai.

Labur-labur. Badinogu iragan industrialaren aztarnak dagozala Bizkaian eta barriri be atera ahal jakela onurea. Horri buruz eztabaidatu dogu Ganbera honetan, eta Bizkaiko Laba Garaian kasua daukagu oraintsu. Zeozer egin beharko litzateke euren aztarnakaz, baina, batez be, beste ondare industrial horregaz. Halanda ze, honako haxe proponiduten dogu edo, hobeto esanda, galdetu egiten dogu: Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko ondare industrialari onurea aterateko estrategiaren edo planen bat antolatu dauan edo bertan parte hartzen dauan. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Escalante Mesón. En el turno de réplica, señora Bilbao Ibarra, portavoz de la Diputación, tiene la palabra.

La Sra. **BILBAO IBARRA** andreak: Buenos días a todos/as. Sí contamos con una estrategia concreta. Se enmarca dentro del proyecto surgido del programa de gobierno, está definida, está definida en el proyecto correspondiente al patrimonio cultural. Además, el día 30 de marzo, se celebró una comparecencia al respecto en la Comisión de Euskera y Cultura, donde facilitamos los últimos datos sobre el patrimonio industrial, tanto respecto a los proyectos como respecto a los recursos o fondos económicos, así como respecto a las colaboraciones existentes.

Dicho lo cual, ¿en qué está definida la estrategia? El punto de partida sería el patrimonio industrial, que, tanto en Bizkaia como para Bizkaia, también supone una oportunidad y un reto. Ahí, nos gustaría subrayar que los testimonios industriales, todos esos

testimonios industriales que disponemos resultan fundamentales para entender nuestra evolución en los últimos siglos.

¿Qué hacer con eso? Por un lado, examinar todos esos testimonios, documentarlos, luego conservarlos y difundirlos en la medida de lo posible.

¿Cómo? En colaboración, por una parte, respecto a la colaboración público privada, y, por otra parte, usted lo ha mencionado, aunque indirectamente, examinándolos desde distintas disciplinas y ámbitos del conocimiento.

¿El objetivo o para qué? En definitiva, dar a conocer todo eso, con el objetivo de proporcionarle el mejor futuro posible.

¿Por qué? Porque creemos que esa es la manera más adecuada para sensibilizar a la sociedad de cara al futuro, actuar de manera responsable con lo que tenemos y ponerlo en valor.

Respecto a la coordinación de la estrategia, ¿con quién la coordinamos? Por un lado, con los/as representantes de distintas organizaciones europeas; por otro lado, dentro del Gobierno Vasco, con los/as responsables de los ámbitos de la cultura y Basquetour, en el marco de un programa, de un programa específico que están desarrollando con todos los testimonios industriales del territorio; por otro lado, coordinar con las diputaciones forales todas las prácticas que existen y todos los proyectos que pudieran existir y, si es posible, compartirlos y trabajar conjuntamente. Cada dos meses, nos reunimos tanto el Gobierno Vasco como las diputaciones. También colaboramos en Hakoba, y, cómo no, también estamos consolidando nuestra relación con las asociaciones vascas de patrimonio y obras públicas, para aprovechar de la manera más adecuada posible todo ese patrimonio que corresponde a Bizkaia, al territorio.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Bilbao Ibarra. En el turno de réplica, señor Escalante Mesón, tiene la palabra.

El Sr. **ESCALANTE MESÓN** jaunak: Muchas gracias, de nuevo. Muchas gracias por su explicación. Funtsa erraza da. Zuok, ikusten dogunez, turismoa erakarteko elementutzat joten dozue ondare industrial. Horixe da egiten dogun irakurketea, behintzat, erabilera gehiago euki daikezanean, eta azalpenean emon doguz adibideak. Izan be, gehiago dagoz; berbarako, Einer eraikina. Alondegia ez da ondare industrialeko eraikina, baina, hasieran, eraikin horrek erabilera bat eukan hasieran, eta beste bat dauka orain; edo, esate baterako, Barakaldoko hiltegia. Nik neuk hurbiltzat joten dodazan adibideak dira.

Berbabide geunkazan beste adibide batzuen artean, Tarabusi eraikina egoan. Egia esan, ez dakigu zer erabilera euki daiketan, beharbada plangintza horren barruan emoten jako, eraikin horretarako proiektuta egoan Nagusi Intelligence Center ez ei dalako hor joango. Hori dala eta, adibide horreei erreparauta, estrategia hori edo plangintza hori daukagu faltan.

2016an galdetu zan horri buruz. Uste dot EH Bildu izan zala aurreko legealdian. Estrategia hori eskatzen ibili zan, eta abian-edo egoala esaten zenduen zuok. Ni neu ez naz topetako gai izan, baleiteke webgunean ondo bilatzeko gai ez izatea. Behar dan lez eskatuko dogu. Dana dala, zelako plangintza-eredua dagoan ikusi gura genduan, ikuspegi hori erabat turistikoa dan benetan jakiteko edo lurraldean daukaguzan ondareko elementuei beste erabileraren bat emon ahal jaken ikusteko.

Euskal errotena oso adibide argia da. Etxe honetan eukien proiektata, eta horri buruz berba egin zan, hain zuzen be, bertan, esaterako, Teknikearen Museoa edo oraindokarren zehaztu barik dagoan Industriaren Museoa lekurtzeko. Antza danez, Industriaren Museo hori Orkonera nabeetan joango da azkenean. Ondare industrialari onurea aterateko beste eredu bat da, eta nahikoa ona da, abian jarri ezker. Dana dala, jakina, zer jazoko da euskal errotakaz? Izan be, zaharbarritu egin behar dala eztabaidatu da. Zuok eztabaidatu dozue Kultura Batzordean, baina erabilerarik emon ahal jako eraikin horri? Erabileraren bat emon ahal jake beste hainbeste eraikini? Izan be, honako hauxe dago funtsean: batetik, ondare industrial horren zati bat bertan behera ixten da, bertan behera ixten da, eta, kasu askotan, erre egiten da azkenean edo arpilatu egiten dabe azkenean. Halanda ze, hori zelan landuko dan jakin gura genduan.

Halanda ze, jakin egin gura dogu plangintzaren bat dagoan, dana bere horretan itxiko dan edo itxiko ez dan eta zer epetan zehazteko. Azken batean, horri aurre egiteko estrategiarik dagoan. Adibidez, oso parekoa dan adibidetik ikastea proponiduten dogu, Kataluniakotik, hain zuzen be. Bai, badauka Industriaren Museorik. Bai, badauka ondare industrialaren inguruan nahikoa garatuta dagoan plangintzarik. Uste dogu norabide horretatik jo behar dogula. Gure aldetik, horixe da dana. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Escalante Mesón. Por último, en el turno de réplica, señora Bilbao Ibarra, tiene la palabra.

La Sra. **BILBAO IBARRA** andreak: Yo podría repetir lo mismo mil veces. Lo que tenemos con el patrimonio es lo que tenemos: se debe analizar y documentar el patrimonio, se debe conservar para que no se pierda, ese cuidado y esa recuperación se deben llevar a cabo con absoluto respeto al patrimonio.

El último ejemplo es el de este lunes, en los modos de hacer, recuperando los modos de hacer siempre que sea posible. Ahí tiene el ejemplo del lunes, relativo a la maquinaria de La Encartada Moda.

¿Cuál es el objetivo? Difundir y dar a conocer el patrimonio. Se estudia caso por caso, cada elemento se estudia en el momento de su recuperación, a qué se destinará su uso o para qué se puede emplear. Es imposible previamente, pero el uso turístico sí que se debe tener en cuenta, por supuesto, y sí que se debe tener en consideración. Sin embargo, no es el único, ni de lejos. La difusión también supone atraer el turismo, pero lo que pretendemos poner en valor no está relacionado solo con el turismo. Se pretende, dirigido a la ciudadanía local, fundamentalmente, examinar caso por caso esas reutilizaciones, para que sean viables y se puedan aprovechar al máximo, principalmente, y lo repito de nuevo, garantizando el mantenimiento y la garantía de ese patrimonio.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Bilbao Ibarra. Punto sexto del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

6.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

6.- Honako idatzi hau aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Iniciativa Originaria:** Pregunta oral en pleno  
([R.E.11/E/2021/0001725](#))

**Autor:** Fernández Angulo, Amaya (GM/TB-PPB)

**Asunto:** Incorporación a la producción normativa y su remisión a las Juntas Generales de informes de la Comisión Jurídica Asesora.

**Documento Principal:**  
([R.E.11/E/2021/0001725](#))

**Expediente:** ([11/B/25/0002395](#))

**Jatorrizko ekimena:** Ahozko erantzun-eskea Osokoan ([11/E/2021/0001725SE](#))

**Egilea:** Fernández Angulo, Amaya (GM/TB-PPB)

**Gaia:** Aholku Batzorde Juridikoaren txostenak araugintzan sartzea eta Batzar Nagusietara bidaltzea

**Dokumentu nagusia:** ([11/E/2021/0001725SE](#))

**Espediente:** ([11/B/25/0002395](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Corresponde el turno a la juntera que ha presentado la iniciativa. Por tanto, señora Fernández Angulo, tiene la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Oposizinoako taldeek eskatuta, honako hauxe euki dogu berbabide Batzar Nagusi honetan: partaidetza politikoa, gardentasuna, errazoa eukitea versus garaipen parlamentarioak, oposizinoaren zeregina ez oztopatzeko preminea. Kasu honetan, nire taldearen ekarpenak legegintzako funtzinoagaz dauka zerikusia.

Hori dala eta, ahaldun nagusiari galdetzen deusat, baina Ganberan ez dagoenez, erantzungo deustana zeu izango zaralakoan nago, Foru Aldundiak neurriren bat hartuko dauan, legegintzako funtzinoa baizen garrantzitsua dan funtzinoa, batzarkideok daukaguna, behar besteko bermeez garatu daiten. Halanda ze, foru-dekretu arauemoileei jagokenez, batez be, nahitaezko erespena, txostena aurkeztu beharko litzateke eurakaz batera, batzarkide guztiok legegintzako funtzinoa behar besteko bermeez garatzeko aukerea euki daigun. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Fernández Angulo. En el turno de réplica, señora Etxanobe Landajueta, portavoz de la Diputación, tiene la palabra.

La Sra. **ETXANOBE LANDAJUELA** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días, de nuevo. Fernández andrea, antolakuntza administratibo onaren ikuspegitik, zure galdereari emondako erantzuna ezezkoa izan behar da, eta zergaitik uste dodan ezetz argudiatu eta azaldu egingo deusat.

Aholku Batzorde Juridikoa, zeure galderan aitatzen dozun organua, Bizkaiko Foru Aldundiko organua da, eta konsultea egin behar jako lege-mailako edo lege-indarreko arauen arabera bere txostena nahitaezkoa dan gaietan edo foru-agintaritzak eskudunak eskatzen dauan beste suposizino batzuetan. Aholku Batzorde Juridikoak, Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumenen esparruan, Estaduko gobernuan Estaduko Kontzejuak beteten dauzan eginkizunak beteten dauz, hau da, legearen arabera zehazten diran gai guztiei buruzko erespena emoten dau, eta ez Gobernuak abian jarten dauzan arauzko prozesu guzti-guztietan.

Izan be, Estaduko Administrazino Orokorreko arauzko proiektu gehien-gehienetan, ez da Estaduko Kontzejuaren erespenik behar. 3/80 Lege Organikoan egiaztatu daikezu zer muetatako ekimenetan konsultatu behar jakon.

Nabarmendu egin gura dot foru-arauaren aurreproiektuen legezkotasunaren kontrola Bizkaiko Batzar Nagusion Araudian xedatutakoaren arabera dagoana bermatuta. Hain zuzen be, Araudi honen 114. artikuluan adierazoten denez, foru-arauaren proiektuak legezkotasunari buruzko kasuan kasuko txostenagaz batera bialdu beharko dira Batzarretara. 2/2017 Foru Dekretuaren 17.3. artikuluan, ganera, legezkotasunari buruzko txosten hori Aholkularitza Juridikorako Zerbitzuak egin behar dauala adierazoten da. Aholkularitza Juridikorako Zerbitzu hori letraduek eta horretarako prestakuntza berezia daukien funtzionarioek osotzen dabe, eta legezkotasunari buruzko txostenak egiten dauz, zuzenbidearen arabera dan ala ez adierazoteko, zuzenbideko aditu moduan daukien jakitate eta ulerkuntza leiala bakarrik kontuan hartuta.

Kontzeptuari begira, esan egin gura deusut legezkotasunari buruzko txostena horretarako pretauta dagoan funtzionario publikoak egindako txostena dala, badakizunez, eta araua zuzenbidearen arabera dan ala ez adierazotea dauka helburu. Horrezaz ganera, Aholkularitza Juridikorako Zerbitzua osotzen daben letradu horreek eurek be osotzen dabe kide anitzeko organua dan Bizkaiko Aholku Batzorde Juridikoa, eta letradu horreek, legezkotasuna kontroletako eginkizunean nahiz aholkularitzea emoteko eginkizunean, ordenamentu juridikoari baino ez deusie men egin behar. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Etxanobe Landajuela. En el turno de réplica, señora Fernández Angulo, tiene la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Ez dot aitatu, zeuk esango zendualakoan. Zer esanik ez, aldaketea egin beharko litzateke, eta, Bizkaiko Aholku Batzorde Juridikoa foru-dekretuaren bidez arautu beharrean, foru-arauaren bidez arautu beharko litzateke, 22 urte darozalako aldatu barik. Zeozelan egin beharko da aurrera.

Harri eta zur itxi nau zure agerraldiak, aste honetan bertan, astelehenean, hain zuzen be, Gobernantza Publikoko eta Autogobernuko sailburuak, Garamendi andreak, eta badakizu nire talde politikokoa ez dana, lege-proiektua aurkeztu daualako Eusko Legebiltzarrean, xedapen orokorrak egiteko prozedurea aldatzeko, besteak beste, ni gaur Ganbera honetan proponiduten nagoan honetarako, hau da, Gobernuaren arauen sorrerarako prozedurak hobetzea, beharrezko baldintzak eta kalidade juridikoa bermatzeko. Horrexeri buruz berbetan nengoan ni.

Baita premineagaz eta aukereagaz zerikusia daukan ekimenean be... Preminea da Ganbera honetan sartzen diran eta bertan aztertzen diran arauzko produktu guztietan aholku-organu baten nahitaezko txostena aurkeztea. Ez dot uste lar eskatzea danik, kalidade demokratikoari begira.

Era berean, preminea ez eze, gure lurraldean abian dagoan organuari onurea aterateko aukerea be baneukan gogoan.

Arauzko produktuei buruz berba egiten dogunean, foru-dekretu arauemoileei buruz berbetan gabiliz, hain zuzen be. Horreei jagokenez, tribuna honetan nonoiz esan dot, edukazino handiz, baina esan egin dot, Gobernu honek erabili ez, lar erabili dauzala agintaldi honetan. 2019an bi izan baziran, igaz preminazko hamar foru-dekretu arauemoile baino gehiago egin zenduezan, egin ziran. Horrezaz ganera, oposizinoko taldeok ez eze, Gobernuko talde batek be salatu eban. Zer salatu dogu oposizinoko taldeok tresna horri buruz? Gehiago izan dirala Gobernuaren preminazko gaiak herritarrentzat eta lurraldearen beharizanetarako benetako garrantzia daukien gaiak baino. Hori dala eta, ziurra da tribuna honetan be neure erara izentau dodazan “nahaste-borrastezko dekretuak” aztertu behar izan

doguzana. Oposizinoko taldeok bakarrik egin ez dogula esan dodanean, 2019ko udan jazotakoari buruz nengoan berbetan, diputadu andrea. Orduan, hain zuzen be, Gobernuari eusten deusien taldeetako batek bere esanetan “hieroglifikozko dekretuak” zirana salatu eban, errenta irregularren inguruan be egin zan zerga-aldaketeari buruzkoa dala eta, ez ebelako benetako ondorioak bereizteko aukerarik emoten. Era berean, bultzatu ebenen arteztasun falteari buruz be berba egin zan. Nik ez dakit antzerkia izan zan ala ez, baina horixe bera da, zehatz-mehatz, Gobernuari eusten deusien taldeetako batek, eta ez da zurea, esan ebana.

Azken batean, zein da ekimen honen helburua? Aurrera egitea, modernizatea, baina ez bakarrik digitalizazioan, garrantzitsuak diran eta batzarkideek funtzinoa garatzeko orduan daukiezan bermeakaz zerikusia daukien beste gauza batzuk be badagozalako. Hori dala eta, hori arautu egin beharko litzatekeala eta aldatu egin beharko litzatekeala uste dogu. Ezelako zalantza barik uste dogu arlo horretan hobetzeko bide luzea egin behar dogula oraindokarren. Gaur dakargun proposamen honen bitartez, uste dogu benetako ekarpena egiten dogula arauaren kalidade objektiboari begira eta Batzar Nagusiek legegintzako erabagietarako tresna garrantzitsua euki daien.

Begirada luzea eukiteko eskatzen deusugu, modernizazioan pentsetako, bermeetan pentsetako, Ganbera honek garatzen dauan legegintzako funtzinoaren hobekuntzan pentsetako. Hori dala eta, barrero erantzuteko txandan tribunan egin dozuzan baieztapenak zuzenduko dozuzalakoan nago. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Fernández Angulo. Por último, en el turno de réplica, señora Etxanobe Landajuela, portavoz de la Diputación, tiene la palabra.

La Sra. **ETXANOBE LANDAJUELA** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Esan dodanez, Fernández andrea, Garamendi sailburuak oraintxe bertan aurkeztu dau Xedapen Orokorrek Egiteko Legearen aldaketea. Geu be, Aldundian bertan, prozesua egiten gabilz, amaitzen gabilz, 2/2017 Dekretua aldatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren arloan jarraibide orokorren sorrerari jagokona da-eta. Halanda ze, bagoaz aurrerantz, aldatzen gagoz eta egokitzen gabilz.

Ezelako zalantza barik, badakit erabateko konfiantzea daukazuna proponiduten zagozan neurriaren ontasunean. Edozelan be, nik neuk azaldu egin gura deusut antolakuntza administratibo egokiaren ikuspegitik proposamena ez dala egokia, nire ustetan. Neure lehenengo agerraldian esan deusudanez, antolakuntza onaren ikuspegitik, funtzino bakotxa, aholkularitza emotekoa edo legezketasuna kontroletakoa, berariazko organuak egin behar dau edo, ordenamentu juridikoan aurreikusten dan lez, horretarako prestatuta dagozan funtzionarioek.

Inguruan daukagun administrazio bakar batean be, Aholku Batzorde Juridikoak edo antzeko organu aholku-emoileak ez dau xedapen orokorrei edo arauzko produktuei buruzko errespenik emon behar. Ez da jazoten ez Estaduko Gobernuan ez Autonomia Erkidegokoan. Halanda be, agirikoa danez, edozelako xedapen orokor egiteko prozesu horreetan guztietan, behar besteko txosten juridikoa be aurkezten da, euren eukien legezketasuna edo ez abaletako. Foru-arauaren proiektuek Aholku Batzorde Juridikoaren errespena behar balebe be, ez leuke berme handiagoa eskainiko eukiak egokiak diran ala ez adierazoteko orduan, bertan Aholkularitza Juridikoak egindako txosten juridikoa be sartzen dalako, esan deusudanez, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Aholku Batzorde Juridikoa be osotzen daben letradu berberak egiten dabezalako.



La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señora Etxanobe Landajueta, vaya terminando.

La Sra. **ETXANOBE LANDAJUELA** andreak: Txosten horreek erespeide juridikoak baino ez dabez kontuan hartzen, eta Batzar Nagusiotara bialtzen dabez. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Etxanobe Landajueta. Punto séptimo del Orden del Día.

